

EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

BIZTANLERIA AKTIBOAREN KUALIFIKAZIOAREN INKESTA 2023

*Emaitza nagusiak
2024ko azaroaren 19an*

*Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Estatistika Organo
Espezifikoa*

AURKIBIDE OROKORRA

HITZAURREA	4
1. Bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dira nagusi biztanleria aktiboaren artean.....	5
2. Gaur egungo prestakuntza-egoera 90eko hamarkadaren amaierakoa baino askoz aurreratuago dago.....	5
3. 2015etik 2023ra bitartean, finkatu egin da prestakuntza hobetzeko prozesua (1999 eta 2007 bitartean hautematen hasia eta 2011 eta 2015 bitartean indartua); hartara, 2007 eta 2011 bitartean jazotako egonkortze-prozesuaren eraginetik urrundu da.....	7
Eranskina: Prestakuntza arautuari buruzko taulak.....	14
PRESTAKUNTZA ARAUTUA ETA LANERATZEA	27
4. 2023an, araututako prestakuntza-maila handiagoa izanda, okupazio-aukerak ere handitu egin dira.....	27
5. Salbuespen edo ñabardura batzuk prestakuntza arautuak duen eragin positiboan.....	30
6. Kualifikazio txikiagoko kolektiboen ez-okupazio arriskua gero eta handiagoa da, eta oso lotuta dago gutxieneko kualifikazioa duen enplegu bat eskuratzeko zailtasun handiagoeekin, baina ñabardurak egin behar dira.....	34
Eranskina. Prestakuntza arautua eta lanpostu bat lortzea: bi aldagaien arteko lotura tauletan adierazita.....	38
LAN- ETA LANBIDE-ESPERIENTZIA	64
7. 2011-2015eko beharakada handien ondoren, gora jarraitzen du teknologia modernoa darabilten lanpostuetan gutxieneko esperientzia-denborari lotutako okupazioak.....	64
8. 2019. eta 2023. urte artean, behera egin du lan-esperientzia esanguratsua duten pertsona aktiboen proportzioak.....	67
9. Lan-esperientzia esanguratsua lortzea funtsezko elementua da ez-okupazioa prebenitzeko, bai gizonen artean, bai emakumeen artean.....	68
Eranskina: Lan- eta lanbide-esperientziari buruzko taulak.....	71
PRESTAKUNTZA OSAGARRIA	111
Prestakuntza ez-arautua.....	111
10. Prestakuntza ez-arautuak garrantzitsua izaten jarraitzen du kualifikazio-faktore gisa.....	111
11. 2023an, PEArek adierazleek 2011 eta 2019 bitartean hautematen zen goranzko errehabilitazio-lerroa hautsi dute.....	113
Hizkuntzak jakitea.....	115
12. 2015ean atzerriko hizkuntzen ezagutza-mailan aurrerapauso nabarmena egin ondoren, 2023an eutsi egin zaio hobekuntza-ildoari.....	115
13. Biztanleria aktiboak ingelesa ikasteko joera du gehienbat.....	116
14. Hizkuntzen ezagutza piztu egin da biztanleria landunaren artean, eta 2023an gainditu egin du ez-landunena.....	117
Eranskina: prestakuntza osagarriari buruzko taulak.....	118
TIPOLOGIA, EAEKO BIZTANLERIA AKTIBOAREN KUALIFIKAZIO-MAILARI DAGOKIONEZ	135
15. Hamar aktibotik 9k baino gehiagok dute gutxienez kualifikazio-faktoreen bat EAEn.....	135
16. Lan-esperientzia duen biztanleriaren pisu erlatiboa berreskuratu da, baina, batez ere, esperientziarik gabeko kolektiboaren murrizketaren ondorioz.....	137
17. Lan-esperientzia esanguratsua lortzea da, oraindik ere, ez-okupazioa prebenitzeko faktore erabakigarria. 2023an, esperientziarik gabeko kolektiboen ez-okupazioaren tasak 2003koa baino txikiagoa da.....	140
18. Prestakuntza kualifikatuak ez-okupazioaren tasak baxuagoak izaten laguntzen du 2023an, esperientzia esanguratsurik ez duten pertsonen kasuan.....	142
19. 2007arekin alderatuta, ikusten da ez-okupazioaren tasek neurri handiagotan egin dutela okerrera lan-esperientziarik eta prestakuntza kualifikaturik gabeko pertsonen artean, bai eta, kolektibo horietatik kanpo, gizonen biztanleria aktiboko sektore batzuetan ere. .	145
LAN-ESPERIENTZIA ESANGURATSUA LORTZEKO AUKERAK MUGATZEN DITUZTEN EGOERAK	147
20. Okupazio-ezaren arrisku-faktoreak 2023an.....	147
21. Arrisku-talde nagusiak.....	149
Eranskina: EAEko biztanleria aktiboaren kualifikazio-egoerarekin loturiko tipologiari buruzko taulak.....	156
ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA ARAUTUA DOITZEKO ARAZOAK	188
22. Enpleguaren eta prestakuntza arautuaren artean doikuntzarik ez egotearen eragina areagotu da.....	188



23. Prestakuntza arautuaren eta enpleguaren arteko desoreken eragina handiagoa da emakumeen artean, baina 2019 eta 2023 bitartean gora egin du gizon eta emakume helduagoen artean.....	191
24. Prestakuntzaren eta okupazioaren arteko desoreka-eremu nagusiak.....	192
Eranskina: enplegua eta prestakuntza arautua bat ez etortzearen arazoei buruzko taulak	194

HITZAURREA

Biztanleria Aktiboaren Kualifikazioaren Inkestak (BAKI) biztanleria aktiboaren kualifikazio-maila zehazten duten hiru dimentsio aztertzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE): lortutako prestakuntza arautua, prestakuntza-jarduera osagarriak (prestakuntza ez-arautuko jarduerak eta hizkuntzak jakitea barne) eta lan-esperientzia.

EAEko biztanleria potentzialki aktiboa da inkestaren aztergaia. Alde batetik, kolektibo horren barruan biztanleria aktiboa sartzan da, zentzurik zabalenean, ia-langabeen kategorian sartuta daudenak ere gehitu dira taldera (hau da, langabe potentzialak). Horrek esan nahi du, LANE eta EUROSTAT erakundeen definizioen arabera landuntzat eta langabetzat hartzen diren pertsoez gain, honako hauek ere hartu direla kontuan BAKIn aztertutako biztanleria aktiboan: zentzu hertsian lanerako prest egon ez arren —hots, 15 eguneko epean lanean hasteko prest, edo langabetzat jotzeko gutxienerako gestioak egin ez arren— lana bilatzen ari direnak¹.

Biztanleria potentzialki aktiboak barne hartzen ditu, bestalde, aktibotasun potentzialeko egoeran dauden pertsonak (aktibo potentzialak). BAKIn 2003tik aurrera aztertu da talde hori. Aktibo potentzialak dira: une horretan lanean ari ez diren eta lana bilatzen ari ez diren pertsonak, baina beren baldintza pertsonaletara eta ezaugarrietara egokitutako lan-eskaintzaren bat jasoz gero, hurrengo hiru hilabeteetan lan hori onartzeko aukera aztertuko luketenak.

2023. urtean, erreferentziako kolektiboa 1.121.146 pertsonakoa izan da EAEn. Kopuru horri aktibo potentzialak kenduz gero (63.418 pertsona), biztanleria aktiboa, zentzurik zabalenean, ia-langabeak barnean hartuta, 1.057.728 pertsonakoa da.

¹ Datu-aurkezpena errazte aldera, ia-langabeen kolektiboa langabeen parekotzat hartzen da BAKIn. Nahasketak saiheste aldera, dena den, “ez-okupazioa” kontzeptua (“ez-landun izatea”) erabiltzen da “langabezia” edo “enplegurik ez” kontzeptuen aldean.



PRESTAKUNTZA ARAUTUAREN MAILA

BAKIn, egindako ikasketa-mailarik handiena aipatzen da prestakuntza arautuaren mailan, eta titulu ofizialik handiena hartzen da kontuan. Hauek dira azpimarratu beharreko emaitza nagusiak:

1. Bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dira nagusi biztanleria aktiboaren artean

2015ean, BAKI abiarazi zenetik lehenengo aldiz, hirugarren edo bigarren goi-mailako lanbide ikasketak zituztenak ziren EAeko biztanleria aktiboaren gehiengoa, guztizkoaren % 51,5². 2023an, berriz, % 58,3 dira.

Talde horren barruan, % 21,2k goi-mailako Lanbide Heziketako titulua du (LH), eta gainerako % 37,1ek, berriz, unibertsitateko titulua (% 10,8k erdi-mailako hirugarren ikasketak, eta % 26,3k goi-mailako hirugarren ikasketak). LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketadun biztanleria kontuan izanda (guztizkoaren % 13), bigarren mailako ikasketak, goi-mailako LHkoak edo hirugarren mailako ikasketak dituztenak biztanleria aktiboaren bi heren baino gehixeago dira, % 71,3rekin, guztira. Erdi-mailako LHko tituludunak barne hartuta (guztizkoaren % 12,2), proportzio hori % 83,5era igotzen da. Horrela, EAeko biztanleria aktiboaren lau bosten baino gehixeagok badu, 2023an, prestakuntza primarioa zentzu hertsian osatzen duen goi-mailako prestakuntza arauturen bat.

Aurreko datuek erakusten dutenez, prestakuntza-maila txikienen pisua txikia da EAEn. Hala ere, alfabetatu gabekoen edo ikasketarik ez dutenen ehunekoa laukoiztu egin da: biztanleria aktiboaren % 0,4 eskas izatetik % 1,8 izateraino. Eta ikasketak izan baina lehen hezkuntza bukatzea lortu ez dutenak % 2,4 dira. Lehen mailako ikasketak amaituta dituzten pertsonak biztanleria aktiboaren gainerako % 12,3a dira.

Biztanleria aktibo potentzialak, 2023an, kualifikazio-maila txikiagoa du biztanleria aktiboak baino. Lehen mailako ikasketak edo beheragoko ikasketa-maila duten pertsonen pisua guztizkoaren % 30,6koa da 2023an. Beste % 14,5ek LHko erdi-mailako titulazioa du, eta % 22,8k Lanbide Heziketakoak ez diren bigarren mailako ikasketetako titulazioa. Ikasketa kualifikatuak (hirugarren mailako ikasketak edo goi-mailako LHkoak) dituzten pertsonen proportzioa % 15,3ra mugatzen da.

2. Gaur egungo prestakuntza-egoera 90eko hamarkadaren amaierakoa baino askoz aurreratuago dago

² Unibertsitateko eta goi-mailako LHko ikasketak hartzen dira ikasketa kualifikatutzat BAKIn, maila horiek prestakuntza eraginkorra eta lanbide-espezializazioa bermatzen dutela ontzat hartuta. LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak eta erdi-mailako Lanbide Heziketa, berriz, aipatutako lanbide-espezializazio horren hasierako fasetzat hartzen dira, eta, beraz, ez dira ikasketa kualifikatutzat jotzen (baina onartzen da prestakuntza-maila esanguratsua ematen duten ikasketak direla).

Ikasketa-mailari dagokionez EAeko biztanleria aktiboan hautemandako aldaketen epe luzeko analisiak prestakuntza-egitura askoz kualifikatuagoa lortzeko bidean aurrera egiten ari dela erakusten du 2023an.

Alde batetik, heziketa-maila txikiena duten aktiboen bolumenak behera egin du. Hala, lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria kopurua $-% 45,1$ jaitsi da 1999tik 2023ra, nahiz eta azken aldian gora egin duen. Era berean, esanguratsua da lehen mailako ikasketak dituzten edo amaitu gabeko bigarren mailako ikasketak dituzten pertsona aktiboen kopuruaren beherakada ($-% 53,7$) denbora-tarte berean. Bestalde, zertxobait handitu da lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren beherakada ($% 1,5$). Erdi-mailako LHren pareko ikasketak dituztenen kopurua, ordea, $% 31,4$ hazi zen 1999-2023 bitartean.

Igoera handiena, dena den, ikasketa kualifikatuak dituzten pertsona aktiboek dagokie. Goi-mailako LHko titulazioa edo hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kopurua $% 56,4$ handitu da biztanleria aktiboan, 1999-2023 aldian. Igoera handiena hirugarren mailako ikasketetako titulazioa duten pertsonen dagokie, bereziki goi-mailako ikasketen kasuan: $% 111,1$; erdi-mailako unibertsitate-ikasketen kasuan, $% 29$, eta $% 29,1$ goi-mailako Lanbide Heziketa dutenen kasuan.

Azken kasu horretan, joera-aldaketa behatu da 2019tik 2023ra. Hala, 2015etik 2019ra goi-mailako Lanbide Heziketa duten pertsona kopurua $% 12,7$ jaitsi ondoren, joera aldatu egin da azken aldian, eta $% 17,6$ igo da.

Aurreko datu horiek erakusten dutenez, biztanleria aktibo mota guztiek gero eta bilakaera hobea dute (edo ez hain txarra, bederen), ikasketa-mailak gora egiten duen heinean. Ezberdintasun argia dago, halaber, egoeran, ikasketa motaren arabera: batetik daude Lanbide Heziketako ikasketak, LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak edo unibertsitateko ikasketak dituztenak (horien biztanleria-bolumena handitu da 1999-2023 aldian), eta, bestetik, ikasketarik ez dutenak edo lehen mailako ikasketak edo lanbideko bigarren mailako ikasketak dituztenak (azken horiek gero eta gutxiago dira, nabarmen, aipatutako aldian).

Talde prestatuenaren barruan, hala ere, joera berezia dago Lanbide Heziketako ikasketen eta unibertsitate-ikasketen artean. 1999-2023 bitartean, Lanbide Heziketaren esparruan, prestakuntza txikieneko taldean izan da hazkunde handiena biztanleria aktiboan ($% 31,4$ erdi-mailako Lanbide Heziketaren kasuan, eta $% 29,1$, goi-mailako Lanbide Heziketaren kasuan); unibertsitate-titulazioetan, aldiz, kontrakoa gertatu da: $% 111,1$ hazi da goi-mailako titulazioen kopurua, erdi-mailako titulazioena baino gehiago ($% 29a$).

Joera horiek positiboak dira oro har, eta nabarmen aldatu dute biztanleria aktiboaren banaketa, 1999tik 2023ra. Hala, 1999an, biztanleria horren $% 36,6$ lehen mailako ikasketak edo ikasketa apalagoak zituen (erdi-mailako Lanbide Heziketarik edo bigarren mailako ikasketa finkaturik lortu gabe). Kopuru hori ikasketa kualifikatuak (goi-mailako Lanbide Heziketa edo unibertsitate-ikasketak) zituzten pertsonena



(% 39,8) baino 3,2 puntu txikiagoa besterik ez zen; gainerako % 23,5a Lanbide Heziketako erdi-mailako ikasketak edo LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak zituzten pertsonen zehazkerari zegokien.

2015ean, ikasketa kualifikatuak zituzten pertsonen pisua % 51,5era iritsi zen, eta lehen aldiz gehiago bilakatu zen multzo hori. Gora jarraitu du, eta 2023an % 58,3ra iritsi da. Proporzio hori, azken urtean, ehuneko 41,8 puntu handiagoa da lehen mailako ikasketak edo prestakuntza-maila txikiagoa duten pertsonen % 16,5a baino. Erdi-mailako Lanbide Heziketako ikasketak edo LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten tituludunen tarteko kolektiboaren pisu erlatiboa egonkorragoa izan da, nahiz eta baliorik handienera heldu den (% 25,1; alegia, 2007ko % 21,1eko minimoa baino nabarmen handiagoa).

3. 2015etik 2023ra bitartean, finkatu egin da prestakuntza hobetzeko prozesua (1999 eta 2007 bitartean hautematen hasia eta 2011 eta 2015 bitartean indartua); hartara, 2007 eta 2011 bitartean jazotako egonkortze-prozesuaren eraginetik urrundu da.

Biztanleria aktiboaren ikasketa-mailaren arabeko barne-banaketan hautemandako eraldaketa kualitatiboa 1999tik 2007ra bitartean hasi zen EAEn, bereziki 2003-2007 laurtekoan. Alabaina, 2007-2011 laurtekoan, nabarmen egonkortu zen araututako prestakuntza-maila. 2011 eta 2019 bitartean, ordea, berriro suspertu zen EAeko biztanleria aktiboaren prestakuntza hobetzeko prozesua, eta halaxe mantendu eta sendotu da 2019 eta 2023 bitartean.

Joera hori oso ongi ikusten da Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren (PAIS) bilakaerari erreparatuz gero³. Horrela, biztanleria aktiboaren artean, PAIS indizea 1999ko 3,34tik, 2003ko 3,41era igo zen, eta, 2007an, igoera nabarmena izan zuen, urte horretan 3,64ra iritsi baitzen. 2011n, adierazlea egonkortu egin zen, beheranzko joera txiki batekin, eta 3,63an geratu zen.

2015ean, PAIS indizeak gora egin du, 1999az geroztik laurtekoetan izandako bigarren igoerarik handienera (+0,12 puntu 2011ren aldean, eta +0,23 2003 eta 2007 bitartean). 2015ean, 3,75eko baliora iritsi da adierazlea.

PAISen goranzko joera finkatu zen 2015 eta 2019 bitartean: aldi horretan, PAIS indizea 3,75etik 3,98ra igo da. 0,23 puntuko hazkundera 2003tik 2007ra bitartekoaren antzekoa da.

Azkenik, azken aldian indizeak maximo historikoa lortu du (4,02), eta lehen aldiz gaintu du lau puntuko atalasea, nahiz eta hazkundera lau ehuneneko baino ez den izan, aurreko aldiarekin alderatuta.

³ Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoa honako formula hau aplikatuta kalkulatzen da BAKIn: $(AGx0 + IGx1 + LGx1,5 + Lx2 + BGx2 + LHx3 + Bx3 + LHx4 + HEx5 + HGx6)$ / Erreferentziako biztanleria
Hau da: AG: Alfabetatu gabeak; IG: Ikasketarik gabeak; LG: Lehen mailako ikasketak amaitu gabeak; L: Lehen mailako ikasketak; BG: Bigarren mailako ikasketak amaitu gabeak; LH I LH I / Erdi-mailako Lanbide Heziketa; B LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak; LH II LH II / Goi-mailako Lanbide Heziketa; HE: Erdi-mailako hirugarren ikasketak; HG: Goi-mailako hirugarren ikasketak.

3.1. 2019 eta 2023 bitartean, goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituen biztanleria aktiboaren hazkunde-erritmoa mantendu da. Gainera, aldi horretan, suspertu egin da erdi-mailako hirugarren ikasketak dituen biztanleria.

EAEko biztanleria aktiboaren prestakuntza arautuaren batez besteko maila etengabe gora egiten aritu ostean, 2007 eta 2011 bitartean, eten egin zen gorako joera hori, nagusiki goi-mailako hirugarren ikasketak zituzten pertsonen kopurua egonkortu zelako. Prestakuntza-maila horretako biztanleria aktiboa % 10,8 hazi zen 1999 eta 2003 bitartean, eta % 25,6, ordea, 2003 eta 2007 bitartean; beraz, igoera % 1ekoa baino ez zen izan. Kopuru absolutuetan, 1999an 131.615 pertsona izatetik 2007an 183.196 izatera igaro ondoren, kopuru hori 185.075era baino ez zen igo 2011n⁴.

2011 eta 2015 bitartean, goi-mailako ikasketak zituen biztanleriaren goranzko bilakaera berriro hasi zen: 2015ean 221.358 pertsona tituludun zeuden, 2011n baino % 19,6 gehiago. Hazkunde-erritmo hori mantendu egin zen 2015etik 2019ra, baina azken urtean nabarmen murriztu da, goi-mailako hirugarren ikasketak dituen biztanleria kopurua 277.860 pertsonara iritsi baita.

Aldi berean, kolektibo horrek biztanleria aktiboan duen pisua handitzeko joera mantendu da. Goi-mailako hirugarren ikasketak zituen biztanleriaren pisu erlatiboa, 1999an % 13,3 izatetik 2019an % 25 izatera igaro ondoren, 2023an izan da baliorik handiena (% 26,3koa); nahiko urrun 2011n izan zuen % 16,6 baliotik.

Hala ere, 2011 eta 2015 bitartean, goi-mailako ikasketak zituen unibertsitate-kolektiboaren goranzko erreperazioa askoz ere argiago ikusten zen lotuta iraupen txikiagoko goi-mailako ikasketak egitera bideratutako unibertsitate-eredu batekin, zeinean erdi-mailako hirugarren ikasketen garrantzia galdu baitzuten. Izan ere, 2011 eta 2015 bitartean, % 11,3 murriztu zen erdi-mailako hirugarren ikasketak zituztenen kopurua. 2015etik 2019ra bitartean, biztanleria aktiboaren kolektibo horrek berriz ere nabarmen egin du gora, % 11,6, hain zuzen. Hala ere, azken aldian berriro egin du behera, % 12,2. Horrek esan nahi du 114.670 pertsona aktibok izan dituztela erdi-mailako unibertsitate-ikasketak 2023an, 2007tik aurrerako baliorik txikiena.

Oro har, hirugarren mailako ikasketadun biztanleen gorakada handia eten egin da azken aldian, eta % 0,7ko jaitsiera txikia gertatu da 2019tik 2023ra. Horrek esan nahi du hautsi egin dela hazkunde-erritmoek 2003tik 2019ra bitartean izan zuten goranzko joera (2003-2007 aldian % 29,2ko igoera izan zen; 2007-2011 laurtekoan, % 7,5era murriztu zen, % 6,8ra, 2011tik 2015era; eta 2015etik 2019ra, berriz % 16,8ra igo zen).

⁴ Egonkortze horren jatorria aztertuta, bazirudien besteak beste bi faktore nagusik eragiten zutela: a) prestakuntza-maila handiko zenbait talde EAEko lan-merkatutik irtetea —dela emigratioagatik, dela prestakuntza birziklatzeko beharagatik, dela erretiroagatik (aurreratua izan zein ez)—, eta b) jaiotza-tasaren beherakadak ikasketak kualifikatuetarako sarbidea duten biztanleria sorta berrien bolumenean eragitea.



Besteekin alderatuta, ikusi diren joeren ondorioz, handitu egin da goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen pisu erlatiboa. 2023an, biztanleria aktiboaren % 37,1 dira. Ehuneko hori askoz handiagoa da 1999ko eta 2003ko % 22-23ko mailak baino, eta 2007ko, 2011ko eta 2015eko % 28,4-% 30,4 bitarteko ehunekoak baino handiagoa ere bai. Hala ere, 2019ko datua baino txikixeagoa da: % 37,4.

PAIS indizearen dinamikan, 2019tik 2023ra hirugarren ikasketak dituen biztanleria aktiboaren kopurua handitzearen ondorioz, adierazleari ekarpen positibo nulua egin zaio, aurreko aldiko 0,40 baino askoz txikiagoa, beraz.

3.2. 2019 eta 2023 bitartean, gora egin du goi-mailako Lanbide Heziketa duten pertsonen kopuruak. LH duen biztanleria aktiboaren barruan, erdi-mailako LHko tituludunen pisua maila erlatibo gorenera iritsi da 2023an

2007 eta 2011 bitartean, hauxe izan da prestakuntza-kualifikazioa hobetzeko faktore nagusia: erdi-mailako hirugarren ikasketak eta goi-mailako lanbide-ikasketak zituen biztanleria aktiboa. Izan ere, LH duen biztanleria aktiboaren kolektibo horrek etengabe egin du gorantz: 1999an 173.777 pertsona ziren, eta 2011n, 232.132 (biztanleria aktiboaren % 17,5etik % 20,8ra igo da denbora-tarte horretan).

Hala ere, 2007-2011 aldian % 15,4ko gorakada izan zuen, eta 2011-2015 laurtekoan, aldiz, % 0,9ko igoera baino ez zuen izan kolektibo horrek. Hala, biztanleria aktibo hori egonkortuta geratu zen ia. 2015ean 234.123 pertsonak osatzen zuten, aktibo guztien % 21ek.

2015 eta 2019 bitartean, joera-aldaketa areagotu zen: kasu horretan, goi-mailako Lanbide Heziketa dutenen bolumenak behera egin zuen, eta gaur egun 204.296 dira.

Hala ere, 2019tik 2023ra, kopurua 20.000 pertsonatik gora handitu da 224.317 pertsona kopurura arte, eta zifra hori 2011ko eta 2015eko mailetatik urrun dago. Termino erlatiboetan, ordea, biztanleria aktiboak 2023an lortu du baliorik handiena, hots, % 21,2, aztertutako aldian.

2019tik 2023ra goranzko joera ez da hedatu erdi-mailako Lanbide Heziketa duten biztanleen artean. Kasu honetan, 2007az geroztik ikusten den pertsona aktiboen kopuruaren errekupeazio-ildoak haustu da. Hala, 2007tik 2015era % 20tik gorako igoerak (% 20,7 osatu zen 2007tik 2011ra, eta % 23,5 osatu zen 2011tik 2015era) % 6,5era murriztu ziren 2015 eta 2019 bitartean, eta azken aldian % 8,7ko beherakada osatu da.

Bilakaera positibo horri esker, 2023an, Lanbide Heziketa dutenek % 33,4ko pisua izan dute biztanleria aktibo osoan; beraz, 2015ean izandako % 32,9ko maximoa gainditu da, eta 1999ko % 27,4tik goranzko joera etengabeak aurrera egiten du.

Lanbide Heziketa duen biztanleria aktiboaren kolektiboaren barruan, ordea, 2023an behera egin du erdi-mailako tituludunen pisua. Aurrez, kolektiboaren pisuak beheranzko joera hartua zuen: 1999an, LHko titulua zuten pertsona guztien % 36 ziren, eta 2007an, berriz, % 30,6. Hortik aurrera, goranzko joera

hartu du, lehenik, moderatuki, 2011ko % 31,5era arte, baina, ondoren, biziago, 2015eko % 36,1era arte, eta 2019an jo du goia: % 40,8. Azkenik, azken aldian datu horrek % 36,4ra egin du behera.

Erdi-mailako Lanbide Heziketako titulua duten pertsonen kopuruak behera egin duen arren, ekarpen positiboa egin dio Lanbide Heziketak PAIS indizeari 2019tik 2023ra bitartean: 0,04 puntu.

Bilakaera horren azalpena izan daiteke berriro egin duela gora lanbide heziketako ikasketak dituen biztanleria aktiboak. 2015ean, 366.237 pertsona ziren; 2019an, berriz, 345.038; hau da, -% 5,8 gutxiago azken lau urteetan. 2023ko kopurua, dena den, 2011koa (339.082 pertsona) baino handiagoa da oraindik.

3.3. 2007tik eta 2011ra izandako gorakada handiaren ondoren, ikasketa kualifikaturik eta LHko ikasketarik gabeko biztanleria aktiboaren bolumenak behera egin du 2015etik 2023ra.

2007-2011 aldian biztanleria aktiboaren bolumenean ikusitako hazkunde handiaren zati handi bat lotuta zegoen ikasketa kualifikaturik eta LHko titulaziorik gabeko biztanleriarekin. Egoera horretan zeudenen kopurua jaitsi zen, etengabe, 1999an 498.344 pertsona izatetik, 2007an 428.049 izatera. 2011n, ordea, berriz ere igo zen kopurua, 460.980ra. Urte horretatik aurrera, baina, beheranzko joerak jarraitu zuen, indar handiz gainera. Biztanleria horren bolumena 408.136 pertsonara jaitsi zen 2015ean, eta 312.332ko minimora, 2023an; hau da, 1999ko mailatik -% 37,3 beherago. 2011-2015 aldiko -% 11,5eko murrizketa -% 22,4ra handitu zen 2015 eta 2019 bitartean, eta nabarmen apaldu da (-% 1,43ra, 2019 eta 2023 artean).

Biztanleria aktiboaren pisu erlatiboari dagokionez, beherakada askoz ere handiagoa eta jarraituagoa da, baita 2007tik 2011ra bitarteko gorakada izan zenean ere. Kolektibo hori 1999ko biztanleria aktibo osoaren % 50,3 zen; 2003an, % 48,7 zen, artean. Eta proportzioak jaisten jarraitu zuen: 2007an, % 42,3ra; 2011n, % 41,3ra; 2015ean, % 36,7ra, eta 2019an % 30,0ra; eta 2023an, % 29,5eko minimora.

Testuinguru horretan, bada beste datu esanguratsu bat ere: lehen mailako ikasketak edo maila apalagoak zituen biztanleria aktiboaren bolumenak 2007tik 2011ra bitartean izandako gorakadaren aldean, 2011tik aurrera beheranzko joera hartu zuen berriz ere. Egoera horretan zeuden aktiboaren kopurua 1999ko 362.908 pertsonatik 2007ko 303.134ra jaitsi zen, eta, 2011n, 311.902 pertsonara igo zen. 2015ean, kopurua 265.710 pertsona kopurura murriztu zen, 2019an, 209.724ra; eta 2023an, 174.914 kopurura, BAKI egiten denetik mailarik txikienera, alegia.

Halaber, kolektibo horren barruan, 2011tik aurrera murriztu zen lehen mailako ikasketarik ez duten pertsonen kopurua. Hain zuzen ere, 2011n, 57.876 pertsona ziren; 2015ean, 40.519, eta, 2019an, 27.284 dira bakarrik. Hala eta guztiz ere, azken aldian igoera osatu da, 44.511 pertsona okupatura iritsi arte. Zifra hori balio maximoa izan da 2011tik; eta 2007ko 38.205 pertsona kopuru erregistratua ere baino handiagoa da.



LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten pertsona aktiboen kopuruak ere behera egin du 2011 eta 2019 bitartean. Kolektibo horren bolumena, 1999an 135.436 pertsonakoa izatetik 2007an 124.915 izatera jaitsi ondoren, 149.076ra igo zen 2011n. Handik aurrera, beheranzko joera hartu zuen, 142.426 pertsonara iritsi arte; dena den, 1999ko mailatik gora artean. 2019an, kopurua askoz ere gehiago murriztu zen, eta 107.149 pertsonara iritsi zen. Hala eta guztiz ere, azken aldian igoera osatu da, 137.418 pertsona okupatura iritsi arte.

3.4. 2019 eta 2023 bitartean, prestakuntzaren adierazle sintetikoak gora egin du oro har. Gorakada antzekoa da sexuaren arabera, nahiz eta handixeagoa den gizonen artean.

PAIS indizearen bilakaera sexuaren eta adinaren arabera aztertuz gero, alderdi garrantzitsu hauek ikus daitezke:

- * 2019 eta 2023 bitartean, nabarmentzekoa da gizonezkoen biztanleria aktiboaren artean PAIS indizeak gora egin duela.

1999 eta 2003 bitartean 3,22tik 3,30era igo ondoren, gizonezkoen PAIS indizeak 0,18 puntuko igoera handia izan zuen 2007an, 3,48ra iritsi arte. Geroago, aurrerapena moteldu zen, 2015eko 3,57ra arte. 2015 eta 2019 bitartean, berriz, BAKIk gizonezkoen PAIS indizean izandako aurrerapen handiena gertatu zen. Era berean, 2019 eta 2023 bitartean, 3,86ko maximora igaro da, 2019ko erregistroa baino 0,06 puntu gorago.

2019-2023 aldiko aurrerapena ere handia izan da emakumeen biztanleria aktiboan: 0,02 puntu igo da, 2019ko 4,17tik 2023ko 4,19ra. Kasu horretan, hala ere, 2003-2007 aldiko igoera nabarmenagoa izan zen: 0,28 puntu igo zen 2003ko 3,57tik 2007ko 3,85era.

2019 eta 2023 bitartean gizonezkoen PAIS indizeak igoera handiagoa izan badu ere, 1999tik emakumeena zertxobait handiagoa izan da. 0,68 puntu igo da 1999ko 3,51tik 2023ko 4,19ra; gizonen biztanleria aktiboak, aldiz, 0,64 puntu egin du gora (3,22tik 3,86ra 1999-2023 aldian). Horren ondorioz, emakumeen PAIS indizea 1999an 0,30 puntu handiago izatetik, 2023an 0,33 puntu handiagoa izatera pasatu da (aldea, dena den, 2015eko 0,39 puntuak baino txikixeagoa da).

- * 2019tik 2023ra bitartean, PAIS indizearen joera positiboa orokorra izan da adin-talde guztietan, eta adierazlean maila maximoak lortu dira 2023an.

2019 eta 2023 artean, igoera handienak (0,25 eta 0,24 puntu positibo) 35 eta 39 urte bitarteko pertsonen eta 55 urtetik gorakoei dagozkie. Halaber, gorakada nabarmena izan da 25-29 urte arteko eta 30 eta 34 urte arteko biztanleria aktiboan (0,10 eta 0,14 puntu artekoak). Oraindik 0,03 puntukoa da 55 urte bitarteko pertsona aktiboen artean.

2023an, 25 eta 34 urte bitarteko biztanleriak jarraitu du PAIS indizerik altuenarekin (4,53), 35 eta 39 urte bitartekoen 4,23koa baino handixeagoa. 25-29 urteko pertsonen lidergo-posizioa 1999az geroztik mantendu da; 2011 izan zen salbuespen bakarra, 3,98ko PAIS indizearekin 30-34 urteko pertsonen 4,09 baino txikiagoa izan baitzen urte hartan.

PAIS indizearen 4,00tik gorako balioak izan dira 40-49 urtekoen taldean ere: 4,06, 40-44 urtekoen artean, eta 4,01, 45-49 urtekoen artean. Kasu bietan beherakada osatu da, aurreko aldiarekin erkatuta. 2023ko zifra 3,86 da 50-54 urtekoen artean, eta 3,76, berriz, 55 urte edo urte gehiago duten pertsonen artean. Gutxieneko balioa (3,76) 16 eta 24 urte arteko pertsonena da, lehengo aldiz.

Bi aldagaiak batera kontuan hartuta, egiaztatu da PAIS indizeak goranzko joera izan duela 2019 eta 2023 bitartean, oro har, sexu- eta adin-talde guztietan. Hazkunderik handiena, ordea, 35 eta 44 urte bitarteko gizonen artean osatu da (0,11 puntukoa). Goranzko joera hori 45 urtetik gorako gizon eta emakumeen artean ere jaso da (0,08, emakumeen kasuan eta 0,07 gizonen kasuan). Igoera txikienak 35 urtetik beherako emakumeen artean osatu dira (0,03 puntu).

Kasu guztietan, emakumeen biztanleria aktiboaren PAIS indizea gizonezkoena baino handiagoa da. Alderik handiena, 0,51 punturekin, 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen taldean gertatu da (4,39, emakumeen artean, eta 3,88, gizonen artean). Adin-talde horretan baino ez da jaitsi, 2019-2023 aldian, PAIS indizean emakumeek gizonei ateratzen dieten aldea. Adin-talde horretan gizonei ateratzen dieten aldeak gora egin zuen 2011tik; urte hartan, gizonezkoen PAIS indizea emakumeena baino 0,37 puntu beherago zegoen (3,45 eta 3,82, hurrenez hurren), eta aldea 0,64 puntura iritsi zen 2019an (3,77 eta 4,40, hurrenez hurren). Azken aldian, berriz, distantzia horrek nabarmen egin du behera.

Epe luzera, 45 urtetik gorako pertsonen artean ere gizonezkoen posizioak okerrera egin du. Aldea gizonen aldekoa zen 2007an, 3,30eko PAIS indizearekin, eta 3,28koa emakumeen artean. 2023an, 45 urtetik gorako emakumeen 3,97 puntuek 0,22 puntutan gainditzen dituzte gizonen 3,75 puntuak.

35 urtetik beherako pertsonen taldean, berriz, murriztu egin da sexuaren araberako aldea 2007tik 2023ra bitartean. 2007an, 0,64 puntuko aldea ateratzen zion emakumeen biztanleria aktiboak gizonezkoenari PAIS indizean (4,26, emakumeek, eta 3,62, gizonek). Aldea 0,45 puntukoa da 2023an (4,54 eta 4,09, hurrenez hurren), eta bost ehunenetan gainditu du 2019ko balioa.

35 urtetik beherako taldean, bilakaera hori bi gertaera hauen emaitza da: 2019 eta 2023 urteen artean emakumezkoen PAIS indizeak bilakaera hobea izan du, eta 2007 eta 2011 urteen artean emakume gazteenak beherakada izan zuen. Nolanahi ere, 35 urtetik beherako emakumeek 1999tik duten lidergoari eutsi diote (4,54 2023an).

3.5. Atzerriko biztanleriaren PAIS indizea gero eta urrunago dago biztanleria nazionalaren indizetik.



Atzerriko biztanleriaren PAIS indizeak zertxobait egin du okerrera 2019 eta 2023 bitartean: 3,14tik 2,93ra. Horiek horrela, mantendu egin dira 2007-2011 aldiko immigrazioak atzerriko biztanleria aktiboaren batez besteko prestakuntza-maila arautuaren bilakaeran izan duen eragin negatiboaren ondorioak. Hala, adierazlea 2003ko 3,28tik 2007ko 3,45era igo ondoren, 2011n 3,01era jaitsi zen; 2015ean, 3,09ra, eta 2019an 3,14ra baino ez zen igo, eta 2023an hiru puntutik beherako minimo historikora iritsi da, 2011ko adierazlearen azpitik.

2023an, atzerritarren PAIS indizea populazio nazionalaren 4,10etik -1,17 puntu beherago geratu da; azken hori, gora egin du etengabe 2003ko 3,42tik (urte hartan 0,14 puntu baino ez zion ateratzen atzerritarren 3,28ko PAIS indizeari).

Eranskina: Prestakuntza arautuari buruzko taulak

1.1. taula
Biztanleria aktiboa prestakuntza-mailaren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Prestakuntza-maila	Abs.	% ber.
Alfabetatu gabeak	1.756	0,2
Ikasketarik gabeak	17.748	1,7
Lehen mailako ikasketak amaitu gabeak	25.007	2,4
Lehen mailako ikasketarik gabeak	44.511	4,2
Lehen mailako ikasketak	104.212	9,9
Bigarren mailako ikasketak amaitu gabeak	26.191	2,5
Lehen mailako ikasketak	130.403	12,3
LH I, Erdi-mailako LH	128.548	12,2
LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	137.418	13,0
Erdi-mailako LH / LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	265.966	25,1
LH II, Goi-mailako LH	224.317	21,2
Erdi-mailako hirugarren ikasketak	114.670	10,8
Goi-mailako hirugarren ikasketak	277.860	26,3
Goi-mailako LH / hirugarren mailako ikasketak	616.847	58,3
Guztira	1.057.728	100,0

1.2. taula.
Biztanleria aktiboaren prestakuntza-mailaren bilakaera
(Datu absolutuak eta hazkunde-tasak)

Prestakuntza-maila	Datu absolutuak						Hazkunde-tasak					
	2003	2007	2011	2015	2019	2023	% 03-07	% 07-11	% 11-15	% 15-19	% 19-23	% 03-23
Alfabetatu gabeak	1.854	1.294	5.061	2.147	0	1.756	-30,2	291,2	-57,6	-100,0	-	-10,0
Ikasketarik gabeak	4.117	6.500	9.154	8.243	4.338	17.748	57,9	40,8	-9,9	-47,4	309,1	247,5
Lehen mailako ikasketak amaitu gabeak	51.724	30.412	43.662	30.129	22.945	25.007	-41,2	43,6	-31,0	-23,8	9,0	-66,2
Lehen mailako ikasketarik gabeak	57.695	38.205	57.876	40.519	27.284	44.511	-33,8	51,5	-30,0	-32,7	63,1	-45,1
Lehen mailako ikasketak	256.274	243.644	236.784	191.447	160.389	104.212	-4,9	-2,8	-19,1	-16,2	-35,0	-56,6
Bigarren mailako ikasketak amaitu gabeak	38.381	21.285	17.243	33.744	22.051	26.191					18,8	-37,3
Lehen mailako ikasketak	294.654	264.929	254.026	225.191	182.440	130.403	-10,1	-4,1	-11,4	-19,0	-28,5	-53,7
LH I, Erdi-mailako LH	89.174	88.593	106.950	132.115	140.741	128.548	-0,7	20,7	23,5	6,5	-8,7	31,4
LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	132.428	124.915	149.076	142.426	107.149	137.418	-5,7	19,3	-4,5	-24,8		1,5
Erdi-mailako LH / LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	221.603	213.508	256.026	274.540	247.890	265.966	-3,7	19,9	7,2	-9,7	7,3	14,0
LH II, Goi-mailako LH	194.206	201.137	232.132	234.123	204.296	224.317	3,6	15,4	0,9	-12,7	9,8	29,1
Erdi-mailako hirugarren ikasketak	82.455	111.746	131.923	117.045	130.630	114.670	35,5	18,1	-11,3	11,6	-12,2	29,0
Goi-mailako hirugarren ikasketak	145.805	183.196	185.075	221.358	264.655	277.860	25,6	1,0	19,6	19,6	5,0	111,1
Goi-mailako LH / hirugarren mailako ikasketak	422.466	496.078	549.130	572.525	599.582	616.847	17,4	10,7	4,3	4,7	2,9	56,4
Guztira	996.418	1.012.720	1.117.059	1.112.776	1.057.196	1.057.728	1,6	10,3	-0,4	-5,0	0,1	6,8

1.3.a taula
Biztanleria aktiboaren banaketaren bilakaera, prestakuntza-mailaren arabera
(% bertikalak)

Prestakuntza-maila	URTEA					
	2003	2007	2011	2015	2019	2023
	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.
Alfabetatu gabeak	0,2	0,1	0,5	0,2	0,0	0,2
Ikasketarik gabeak	0,4	0,6	0,8	0,7	0,4	1,7
Lehen mailako ikasketak amaitu gabeak	5,2	3,0	3,9	2,7	2,2	2,4
Lehen mailako ikasketarik gabeak	5,8	3,8	5,2	3,6	2,6	4,2
Lehen mailako ikasketak	25,7	24,1	21,2	17,2	15,2	9,9
Bigarren mailako ikasketak amaitu gabeak	3,9	2,1	1,5	3,0	2,1	2,5
Lehen mailako ikasketak	29,6	26,2	22,7	20,2	17,3	12,3
LH I, Erdi-mailako LH	8,9	8,7	9,6	11,9	13,3	12,2
LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	13,3	12,3	13,3	12,8	10,1	13,0
Erdi-mailako LH / LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	22,2	21,1	22,9	24,7	23,4	25,1
LH II, Goi-mailako LH	19,5	19,9	20,8	21	19,3	21,2
Erdi-mailako hirugarren ikasketak	8,3	11	11,8	10,5	12,4	10,8
Goi-mailako hirugarren ikasketak	14,6	18,1	16,6	19,9	25,0	26,3
Goi-mailako LH / Hirugarren mailako ikasketak	42,4	49	49,2	51,5	56,7	58,3
Guztira	100	100	100	100	100	100,0

1.3.b taula
Biztanleria aktiboaren banaketaren bilakaera, prestakuntza-mailaren arabera
(% bertikalak prestakuntza-talde agregatu bakoitzaren barruan)

	2003	2007	2011	2015	2019	2023
	% ber. talde barruan	% ber. talde barruan	% ber. talde barruan	% ber. talde barruan	% ber. talde barruan	% ber. talde barruan
Alfabetatu gabeak	3,2	3,4	8,7	5,3	,0	3,9
Ikasketarik gabeak	7,1	17,0	15,8	20,3	15,9	39,9
Lehen mailako ikasketak amaitu gabeak	89,7	79,6	75,4	74,4	84,1	56,2
Lehen mailako ikasketarik gabeak	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Lehen mailako ikasketak	87,0	92,0	93,2	85,0	87,9	79,9
Bigarren mailako ikasketak amaitu gabeak	13,0	8,0	6,8	15,0	12,1	20,1
Lehen mailako ikasketak	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
LH I, Erdi-mailako LH	40,2	41,5	41,8	48,1	56,8	48,3
LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	59,8	58,5	58,2	51,9	43,2	51,7
Erdi-mailako LH / LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
LH II, Goi-mailako LH	46,0	40,5	42,3	40,9	34,1	36,4
Erdi-mailako hirugarren ikasketak	19,5	22,5	24,0	20,4	21,8	18,6
Goi-mailako hirugarren ikasketak	34,5	36,9	33,7	38,7	44,1	45,0
Goi-mailako LH / hirugarren mailako ikasketak	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

1.4. taula
Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera

Urtea	PAIS
1999	3,34
2003	3,41
2007	3,64
2011	3,63
2015	3,75
2019	3,98
2023	4,02

1.5. taula
Biztanleria aktibo prestakuntza-mailaren eta sexuaren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Prestakuntza-maila	Gizonezkoa		Emakumezkoa	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Lehen mailako ikasketarik gabeak	23.255	4,2	21.256	4,2
Lehen mailako ikasketak	69.158	12,6	61.245	12,0
LH I, Erdi-mailako LH	78.145	14,2	50.403	9,9
LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	76.614	14,0	60.804	11,9
Erdi-mailako LH / LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	154.759	28,2	111.207	21,8
LH II, Goi-mailako LH	140.176	25,5	84.142	16,5
Erdi-mailako hirugarren ikasketak	43.100	7,9	71.570	14,1
Goi-mailako hirugarren ikasketak	118.269	21,6	159.591	31,4
Goi-mailako LH / hirugarren mailako ikasketak	301.544	55,0	315.303	61,9
Guztira	548.717	100,0	509.011	100,0

1.6. taula
Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, sexuaren arabera

Urtea	PAIS	
	Gizonezkoa	Emakumezkoa
1999	3,22	3,51
2003	3,30	3,57
2007	3,48	3,85
2011	3,49	3,79
2015	3,57	3,96
2019	3,80	4,17
2023	3,86	4,19

1.7.a taula
Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren eta adinaren arabera
(Datu absolutuak)

Prestakuntza-maila	16-24 urte	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	40-44 urte	45-49 urte	50-54 urte	55 urte eta gehiago
Lehen mailako ikasketarik gabeak	2.225	1.171	800	4.474	5.907	6.164	6.216	17.555
Lehen mailako ikasketak	6.927	2.948	2.858	3.661	15.810	20.197	27.731	50.271
LH I, Erdi-mailako LH	9.377	9.737	15.044	12.842	13.797	19.368	19.652	28.731
LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	12.124	8.800	12.532	15.134	22.405	20.009	16.170	30.244
Erdi-mailako LH / LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	21.501	18.537	27.576	27.976	36.202	39.377	35.823	58.975
LH II, Goi-mailako LH	13.570	21.144	17.964	21.214	37.321	37.462	32.894	42.747
Erdi-mailako hirugarren ikasketak	6.170	7.368	11.887	13.126	14.111	22.553	17.718	21.735
Goi-mailako hirugarren ikasketak	4.897	32.304	37.881	28.841	39.171	38.864	34.618	61.284
Goi-mailako LH / hirugarren mailako ikasketak	24.638	60.816	67.732	63.182	90.604	98.879	85.230	125.766
Guztira	55.291	83.472	98.966	99.294	148.523	164.617	155.000	252.566

1.7.b taula
Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren eta adinaren arabera
(% bertikalak)

Prestakuntza-maila	16-24 urte	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	40-44 urte	45-49 urte	50-54 urte	55 urte eta gehiago
Lehen mailako ikasketarik gabeak	4,0	1,4	0,8	4,5	4,0	3,7	4,0	7,0
Lehen mailako ikasketak	12,5	3,5	2,9	3,7	10,6	12,3	17,9	19,9
LH I, Erdi-mailako LH	17,0	11,7	15,2	12,9	9,3	11,8	12,7	11,4
LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	21,9	10,5	12,7	15,2	15,1	12,2	10,4	12,0
Erdi-mailako LH / LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	38,9	22,2	27,9	28,2	24,4	23,9	23,1	23,4
LH II, Goi-mailako LH	24,5	25,3	18,2	21,4	25,1	22,8	21,2	16,9
Erdi-mailako hirugarren ikasketak	11,2	8,8	12,0	13,2	9,5	13,7	11,4	8,6
Goi-mailako hirugarren ikasketak	8,9	38,7	38,3	29,0	26,4	23,6	22,3	24,3
Goi-mailako LH / hirugarren mailako ikasketak	44,6	72,9	68,4	63,6	61,0	60,1	55,0	49,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

1.8.a taula
Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, adinaren arabera

PAIS	1999	2003	2007	2011	2015	2019	2023
16-24 urte	3,29	3,41	3,45	3,46	3,80	3,89	3,53
25-29 urte	3,82	3,93	4,06	3,98	4,18	4,43	4,53
30-34 urte	3,64	3,79	3,96	4,09	4,05	4,39	4,53
35-39 urte	3,59	3,54	3,71	3,73	3,90	3,97	4,23
40-44 urte	3,19	3,43	3,74	3,52	3,99	4,17	4,06
45-49 urte	3,09	3,06	3,38	3,52	3,65	4,09	4,01
50-54 urte	2,88	2,95	3,25	3,34	3,51	3,83	3,86
55 urte eta gehiago	2,64	2,72	3,24	3,26	3,30	3,51	3,76
Guztira	3,34	3,41	3,64	3,63	3,75	3,98	4,02

1.8.b taula
Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, adinaren eta sexuaren arabera

		1999	2003	2007	2011	2015	2019	2023
Gizonezkoa	16-24 urte	3,13	3,23	3,15	3,45	3,69	4,0	3,40
	25-29 urte	3,6	3,73	3,86	3,77	3,91	4,31	4,35
	30-34 urte	3,47	3,58	3,61	3,8	3,8	4,0	4,25
	35-39 urte	3,4	3,43	3,46	3,48	3,65	3,64	3,88
	40-44 urte	3,19	3,34	3,63	3,43	3,7	3,88	3,87
	45-49 urte	3,06	3,04	3,29	3,43	3,39	3,94	3,77
	50-54 urte	2,92	2,98	3,26	3,29	3,39	3,69	3,71
	55 urte eta gehiago	2,78	2,87	3,35	3,27	3,35	3,49	3,77
	Guztira	3,22	3,3	3,48	3,49	3,57	3,8	3,86
	PAIS	16-24 urte	3,49	3,66	3,87	3,48	3,93	3,8
25-29 urte		4,06	4,17	4,32	4,2	4,44	4,58	4,76
30-34 urte		3,85	4,03	4,34	4,41	4,3	4,79	4,82
35-39 urte		3,8	3,69	4,01	3,99	4,15	4,31	4,60
40-44 urte		3,2	3,56	3,89	3,65	4,32	4,49	4,25
45-49 urte		3,13	3,09	3,49	3,63	3,95	4,26	4,24
50-54 urte		2,77	2,89	3,23	3,39	3,64	3,98	4,04
55 urte eta gehiago		2,32	2,43	3,01	3,24	3,24	3,54	3,74
Guztira		3,51	3,57	3,85	3,79	3,96	4,17	4,19

1.9.a taula
Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera
(Datu absolutuak)

Prestakuntza-maila	< 35 urteko gizonak	35-44 urte bitarteko gizonak	>= 45 urteko gizonak	< 35 urteko emakumeak	35-44 urte bitarteko emakumeak	>= 45 urteko emakumeak
Lehen mailako ikasketarik gabeak	1.758	6.305	15.192	2.437	4.076	14.742
Lehen mailako ikasketak	5.130	9.619	54.409	7.604	9.851	43.790
LH I, Erdi-mailako LH	23.345	17.319	37.482	10.813	9.320	30.270
LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	18.709	20.524	37.381	14.747	17.015	29.042
Erdi-mailako LH / LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	42.054	37.843	74.863	25.560	26.335	59.311
LH II, Goi-mailako LH	39.327	38.691	62.157	13.351	19.844	50.947
Erdi-mailako hirugarren ikasketak	7.717	11.089	24.294	17.709	16.149	37.712
Goi-mailako hirugarren ikasketak	30.012	23.727	64.530	45.070	44.286	70.236
Goi-mailako LH / hirugarren mailako ikasketak	77.057	73.507	150.980	76.129	80.279	158.895
Guztira	125.998	127.274	295.444	111.731	120.542	276.738

1.9.b taula
Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera
(% bertikalak)

Prestakuntza-maila	< 35 urteko gizonak	35-44 urte bitarteko gizonak	>= 45 urteko gizonak	< 35 urteko emakumeak	35-44 urte bitarteko emakumeak	>= 45 urteko emakumeak
Lehen mailako ikasketarik gabeak	1,4	5,0	5,1	2,2	3,4	5,3
Lehen mailako ikasketak	4,1	7,6	18,4	6,8	8,2	15,8
LH I, Erdi-mailako LH	18,5	13,6	12,7	9,7	7,7	10,9
LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	14,8	16,1	12,7	13,2	14,1	10,5
Erdi-mailako LH / LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	33,4	29,7	25,3	22,9	21,8	21,4
LH II, Goi-mailako LH	31,2	30,4	21,0	11,9	16,5	18,4
Erdi-mailako hirugarren ikasketak	6,1	8,7	8,2	15,8	13,4	13,6
Goi-mailako hirugarren ikasketak	23,8	18,6	21,8	40,3	36,7	25,4
Goi-mailako LH / hirugarren mailako ikasketak	61,2	57,8	51,1	68,1	66,6	57,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

1.10.a taula
Biztanleria aktiboaren bilakaera, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera
(Datu absolutuak)

Sexua eta adina		Erdi-mailako LH / LHkoak ez										
		Lehen mailako ikasketarik gabeak	Lehen mailako ikasketak	LH I. Erdi-mailako LH	LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	Erdi-mailako LH / LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak		LH II. Goi-mailako LH	Erdi-mailako hiruugarren mailako ikasketak	Goi-mailako hiruugarren mailako ikasketak	Goi-mailako LH / hiruugarren mailako ikasketak	Guztira
< 35 urteko gizonak	2003	8.384	44.649	22.374	33.747	56.121	64.577	12.270	29.311	106.158	215.311	
	2007	5.405	44.659	22.369	29.261	51.630	50.900	15.746	31.881	98.526	200.220	
	2011	6.561	30.052	20.952	26.363	47.315	49.161	15.984	30.814	95.959	179.887	
	2015	2.615	12.309	27.770	20.934	48.704	38.452	10.246	22.646	71.344	134.973	
	2019	2.154	6.768	26.309	13.861	40.171	26.954	11.632	30.878	69.465	118.557	
	2023	1.758	5.130	23.345	18.709	42.054	39.327	7.717	30.012	77.057	125.998	
35-44 urte bitarteko gizonak	2003	7.996	49.969	16.307	17.098	33.405	33.013	10.821	22.824	66.658	158.028	
	2007	5.550	47.083	15.263	17.154	32.417	39.070	15.067	25.944	80.081	165.132	
	2011	12.844	40.292	18.966	20.542	39.508	54.573	12.065	21.965	88.603	181.246	
	2015	7.567	34.829	18.133	17.756	35.889	51.336	11.651	29.933	92.919	171.205	
	2019	5.226	28.625	21.190	16.920	38.110	39.146	13.984	29.311	82.441	154.401	
	2023	6.305	9.619	17.319	20.524	37.843	38.691	11.089	23.727	73.507	127.274	
>= 45 urteko gizonak	2003	17.172	90.592	12.673	23.909	36.582	30.954	9.442	19.866	60.262	204.609	
	2007	11.773	81.609	11.722	26.289	38.010	38.285	14.772	32.760	85.817	217.210	
	2011	12.782	78.438	19.266	36.655	55.922	43.769	16.653	34.544	94.966	242.107	
	2015	13.392	89.693	28.222	35.465	63.687	50.430	13.336	45.820	109.587	276.359	
	2019	9.006	69.004	35.611	25.475	61.086	62.347	18.815	57.661	138.823	277.919	
	2023	15.192	54.409	37.482	37.381	74.863	62.157	24.294	64.530	150.980	295.444	
< 35 urteko emakumeak	2003	3.281	27.108	13.840	30.786	44.626	36.893	20.457	44.838	102.187	177.203	
	2007	4.036	13.469	16.557	20.611	37.168	33.681	31.298	42.523	107.502	162.175	
	2011	4.403	16.710	18.724	25.389	44.113	28.062	33.750	41.949	103.761	168.986	
	2015	2.024	9.287	12.288	21.684	33.972	27.745	24.890	35.414	88.049	133.332	
	2019	1.496	6.225	13.015	14.277	27.292	12.745	26.959	36.882	76.585	111.599	
	2023	2.437	7.604	10.813	14.747	25.560	13.351	17.709	45.070	76.129	111.731	
35-44 urte bitarteko emakumeak	2003	4.638	33.740	15.327	11.938	27.264	18.164	18.496	21.082	57.742	123.384	
	2007	2.905	27.810	11.257	13.626	24.883	24.422	17.292	32.137	73.852	129.449	
	2011	6.738	28.846	13.524	19.340	32.864	33.701	24.926	27.871	86.497	154.944	
	2015	4.592	19.650	16.903	14.952	31.855	31.320	27.295	47.046	105.661	161.758	
	2019	2.450	16.636	13.686	12.193	25.880	23.019	31.479	46.289	100.786	145.752	
	2023	4.076	9.851	9.320	17.015	26.335	19.844	16.149	44.286	80.279	120.542	
>= 45 urteko emakumeak	2003	16.224	48.597	8.654	14.950	23.604	10.605	10.970	7.883	29.458	117.883	
	2007	8.537	50.299	11.425	17.974	29.399	14.778	17.571	17.951	50.299	138.535	
	2011	14.549	59.688	15.518	20.787	36.305	22.867	28.546	27.933	79.346	189.888	
	2015	10.329	59.423	28.798	31.635	60.433	34.841	29.627	40.498	104.966	235.150	
	2019	6.952	55.182	30.931	24.422	55.353	40.086	27.762	63.634	131.481	248.968	
	2023	14.742	43.790	30.270	29.042	59.311	50.947	37.712	70.236	158.895	276.738	
Guztira	2003	57.695	294.654	89.174	132.428	221.603	194.206	82.455	145.805	422.466	996.418	
	2007	38.205	264.929	88.593	124.915	213.508	201.137	111.746	183.196	496.078	1.012.720	
	2011	57.876	254.026	106.950	149.076	256.026	232.132	131.923	185.075	549.130	1.117.059	
	2015	40.519	225.191	132.115	142.426	274.540	234.123	117.045	221.358	572.525	1.112.776	
	2019	27.284	182.440	140.741	107.149	247.890	204.296	130.630	264.655	599.582	1.057.196	
	2023	44.511	130.403	128.548	137.418	265.966	224.317	114.670	277.860	616.847	1.057.728	

1.10.b taula

Biztanleria aktiboaren banaketaren bilakaera prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera (% horizontalak)

Sexua eta adina		Lehen mailako ikasketarik gabeak	Lehen mailako ikasketak	LH I, Erdi-mailako LH	LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	Erdi-mailako LH / LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	LH II, Goi-mailako LH	Erdi-mailako hirugarren ikasketak	Goi-mailako hirugarren ikasketak	Goi-mailako LH / hirugarren mailako ikasketak	Guztira
< 35 urteko gizonak	2003	3,9	20,7	10,4	15,7	26,1	30,0	5,7	13,6	49,3	100,0
	2007	2,7	22,3	11,2	14,6	25,8	25,4	7,9	15,9	49,2	100,0
	2011	3,6	16,7	11,6	14,7	26,3	27,3	8,9	17,1	53,3	100,0
	2015	1,9	9,1	20,6	15,5	36,1	28,5	7,6	16,8	52,9	100,0
	2019	1,8	5,7	22,2	11,7	33,9	22,7	9,8	26,0	58,6	100,0
	2023	1,4	4,1	18,5	14,8	33,4	31,2	6,1	23,8	61,2	100,0
35-44 urte bitarteko gizonak	2003	5,1	31,6	10,3	10,8	21,1	20,9	6,8	14,4	42,2	100,0
	2007	3,4	28,5	9,2	10,4	19,6	23,7	9,1	15,7	48,5	100,0
	2011	7,1	22,2	10,5	11,3	21,8	30,1	6,7	12,1	48,9	100,0
	2015	4,4	20,3	10,6	10,4	21,0	30,0	6,8	17,5	54,3	100,0
	2019	3,4	18,5	13,7	11,0	24,7	25,4	9,1	19,0	53,4	100,0
	2023	5,0	7,6	13,6	16,1	29,7	30,4	8,7	18,6	57,8	100,0
>= 45 urteko gizonak	2003	8,4	44,3	6,2	11,7	17,9	15,1	4,6	9,7	29,5	100,0
	2007	5,4	37,6	5,4	12,1	17,5	17,6	6,8	15,1	39,5	100,0
	2011	5,3	32,4	8,0	15,1	23,1	18,1	6,9	14,3	39,2	100,0
	2015	4,8	32,5	10,2	12,8	23,0	18,2	4,8	16,6	39,7	100,0
	2019	3,2	24,8	12,8	9,2	22,0	22,4	6,8	20,7	50,0	100,0
	2023	5,1	18,4	12,7	12,7	25,3	21,0	8,2	21,8	51,1	100,0
< 35 urteko emakumeak	2003	1,9	15,3	7,8	17,4	25,2	20,8	11,5	25,3	57,7	100,0
	2007	2,5	8,3	10,2	12,7	22,9	20,8	19,3	26,2	66,3	100,0
	2011	2,6	9,9	11,1	15,0	26,1	16,6	20,0	24,8	61,4	100,0
	2015	1,5	7,0	9,2	16,3	25,5	20,8	18,7	26,6	66,0	100,0
	2019	1,3	5,6	11,7	12,8	24,5	11,4	24,2	33,0	68,6	100,0
	2023	2,2	6,8	9,7	13,2	22,9	11,9	15,8	40,3	68,1	100,0
35-44 urte bitarteko emakumeak	2003	3,8	27,3	12,4	9,7	22,1	14,7	15,0	17,1	46,8	100,0
	2007	2,2	21,5	8,7	10,5	19,2	18,9	13,4	24,8	57,1	100,0
	2011	4,3	18,6	8,7	12,5	21,2	21,8	16,1	18,0	55,8	100,0
	2015	2,8	12,1	10,4	9,2	19,7	19,4	16,9	29,1	65,3	100,0
	2019	1,7	11,4	9,4	8,4	17,8	15,8	21,6	31,8	69,1	100,0
	2023	3,4	8,2	7,7	14,1	21,8	16,5	13,4	36,7	66,6	100,0
>= 45 urteko emakumeak	2003	13,8	41,2	7,3	12,7	20,0	9,0	9,3	6,7	25,0	100,0
	2007	6,2	36,3	8,2	13,0	21,2	10,7	12,7	13,0	36,3	100,0
	2011	7,7	31,4	8,2	10,9	19,1	12,0	15,0	14,7	41,8	100,0
	2015	4,4	25,3	12,2	13,5	25,7	14,8	12,6	17,2	44,6	100,0
	2019	2,8	22,2	12,4	9,8	22,2	16,1	11,2	25,6	52,8	100,0
	2023	5,3	15,8	10,9	10,5	21,4	18,4	13,6	25,4	57,4	100,0
Guztira	2003	5,8	29,6	8,9	13,3	22,2	19,5	8,3	14,6	42,4	100,0
	2007	3,8	26,2	8,7	12,3	21,1	19,9	11,0	18,1	49,0	100,0
	2011	5,2	22,7	9,6	13,3	22,9	20,8	11,8	16,6	49,2	100,0
	2015	3,6	20,2	11,9	12,8	24,7	21,0	10,5	19,9	51,5	100,0
	2019	2,6	17,3	13,3	10,1	23,4	19,3	12,4	25,0	56,7	100,0
	2023	4,2	12,3	12,2	13,0	25,1	21,2	10,8	26,3	58,3	100,0

1.10.c taula
Biztanleria aktiboaren bilakaera, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera
(2003/2023 bitarteko hazkunde-tasa)

Sexua eta adina		Lehen mailako ikasketarik gabek	Lehen mailako ikasketak	LH I, Erdi-mailako LH	LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	Erdi-mailako LH / LHkoak ez diren bigarren mailako ikasketak	LH II, Goi-mailako LH	Erdi-mailako hirugarren ikasketak	Goi-mailako hirugarren ikasketak	Goi-mailako LH / hirugarren mailako ikasketak	Guztira
< 35 urteko gizonak	% 03-07	-35,5	0,0	0,0	-13,3	-8,0	-21,2	28,3	8,8	-7,2	-7,0
	% 07-11	21,4	-32,7	-6,3	-9,9	-8,4	-3,4	1,5	-3,3	-2,6	-10,2
	% 11-15	-60,1	-59,0	32,5	-20,6	2,9	-21,8	-35,9	-26,5	-25,7	-25,0
	% 15-19	-17,6	-45,0	-5,3	-33,8	-17,5	-29,9	13,5	36,3	-2,6	-12,2
	% 19-23	-18,4	-24,2	-11,3	35,0	4,7	45,9	-33,7	-2,8	10,9	6,3
	% 03-23	-85,7	-91,6	-14,5	-46,4	-32,4	-38,6	-33,4	-1,0	-27,3	-47,8
35-44 urte bitarteko gizonak	% 03-07	-30,6	-5,8	-6,4	0,3	-3,0	18,3	39,2	13,7	20,1	4,5
	% 07-11	131,4	-14,4	24,3	19,7	21,9	39,7	-19,9	-15,3	10,6	9,8
	% 11-15	-41,1	-13,6	-4,4	-13,6	-9,2	-5,9	-3,4	36,3	4,9	-5,5
	% 15-19	-30,9	-17,8	16,9	-4,7	6,2	-23,7	20,0	-2,1	-11,3	-9,8
Enplegua lortu gabe, PEArrik gabe	5.894	7,2	11.456	18,1	17.350	12,0
Guztira	81.333	100,0	63.418	100,0	144.751	100,0

Esperientzia mota oro hartu da aintzat, kontuan izan gabe noiz jaso den Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

4.20 taula.
Prestakuntza ez-arautuko ekintzak egin dituen biztanleria aktibo eta potentzialki aktibo ez-landuna, prestakuntza ez-arautuaren edukiaren arabera
(% bertikalak)

PEAren edukia	Bizt. aktiboa	Akt. potentziala	Potentzialki aktiboa
Zuzendaritza eta kudeaketa	18,4	18,8	18,5
Informatika	7,5	14,3	9,2
Hizkuntzak	1,0	,0	,8
Besterik orokorrak	4,5	,0	3,4
Informatika teknikoa	5,5	,4	4,2
Zerbitzuak	24,7	36,0	27,6
Gainerako sektoreak	38,3	30,4	36,3
Guztira	100,0	100,0	100,0

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

4.21 taula.
Biztanleria aktibo eta potentzialki aktiboa, atzerriko hizkuntzen ezagutzaren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Atzerriko hizkuntzak jakitea	Jarduerarekiko lotura					
	Bizt. aktiboa		Aktibo potentziala		Potentzialki aktiboa	
	Absolutuak	% bertikalak	Absolutuak	% bertikalak	Absolutuak	% bertikalak
Baten bat ongi edo oso ongi	420.314	39,7	25.478	40,2	445.793	39,8
Baten bat hala moduz	317.295	30,0	15.166	23,9	332.461	29,7
Gaizki edo bat ere ez	320.118	30,3	22.774	35,9	342.892	30,6
Guztira	1.057.728	100,0	63.418	100,0	1.121.146	100,0

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

4.22.a taula.
Biztanleria aktibo eta potentzialki aktiboaren bilakaera, atzerriko hizkuntzen
ezagutzaren arabera
(Datu absolutuak)

Atzerriko hizkuntzak jakitea	Bizt. Aktiboa						Potentzialki aktiboa					
	2003	2007	2011	2015	2019	2023	2003	2007	2011	2015	2019	2023
Baten bat ongi edo oso ongi	209.509	253.083	305.011	373.085	373.287	420.314	220.778	258.546	312.463	381.173	389.043	445.793
Baten bat hala moduz	256.543	274.339	261.092	282.857	274.754	317.295	266.609	280.583	263.931	290.349	281.631	332.461
Gaizki edo bat ere ez	530.366	485.298	550.955	456.834	409.155	320.118	563.420	501.828	566.427	472.583	434.037	342.892
Guztira	996.418	1.012.720	1.117.059	1.112.776	1.057.196	1.057.728	1.050.807	1.040.958	1.142.821	1.144.105	1.104.711	1.121.146

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

4.22.b taula.
Biztanleria aktibo eta potentzialki aktiboaren bilakaera, atzerriko hizkuntzen
ezagutzaren arabera
(Hazkunde-tasak)

Atzerriko hizkuntzak jakitea	Bizt. Aktiboa						Potentzialki aktiboa					
	% 03-07	% 07-11	% 11-15	% 15-19	% 19-23	% 99-23	% 03-07	% 07-11	% 11-15	% 15-19	% 19-23	% 99-23
Baten bat ongi edo oso ongi	20,8	20,5	22,3	0,1	12,6	123,9	17,1	20,9	22,0	2,1	14,6	137,5
Baten bat hala moduz	6,9	-4,8	8,3	-2,9	15,5	18,2	5,2	-5,9	10,0	-3,0	18,0	23,8
Gaizki edo bat ere ez	-8,5	13,5	-17,1	-10,4	-21,8	-40,1	-10,9	12,9	-16,6	-8,2	0,2	-35,8
Guztira	1,6	10,3	-0,4	-5,0	0,1	6,8	-0,9	9,8	0,1	-3,4	14,6	13,2

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

4.22.c taula.
Biztanleria aktibo eta potentzialki aktiboaren bilakaera, atzerriko hizkuntzen
ezagutzaren arabera
(% bertikalak)

Atzerriko hizkuntzak jakitea	Bizt. Aktiboa						Potentzialki aktiboa					
	2003	2007	2011	2015	2019	2023	2003	2007	2011	2015	2019	2023
Baten bat ongi edo oso ongi	21,0	25,0	27,3	33,5	35,3	39,7	21,0	24,8	27,3	33,3	35,2	39,8
Baten bat hala moduz	25,7	27,1	23,4	25,4	26,0	30,0	25,4	27,0	23,1	25,4	25,5	29,7
Gaizki edo bat ere ez	53,2	47,9	49,3	41,1	38,7	30,3	53,6	48,2	49,6	41,3	39,3	30,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

4.23.a taula.
Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria aktiboaren
proportzioaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(%tan)

Sexua eta adina	2003	2007	2011	2015	2019	2023
< 35 urteko gizonak	25,8	28,7	39,7	45,0	46,9	57,2
35-44 urte bitarteko gizonak	18,2	20,4	27,2	38,6	41,4	47,5
>= 45 urteko gizonak	12,2	18,4	16,1	20,8	26,0	27,0
Gizonezkoa	18,9	22,5	26,5	31,6	34,8	38,7
< 35 urteko emakumeak	35,7	40,0	41,7	50,0	55,3	65,9
35-44 urte bitarteko emakumeak	18,4	27,7	25,6	39,8	39,7	43,3
>= 45 urteko emakumeak	12,1	15,4	18,5	24,5	24,9	29,7
Emakumezkoa	24,0	28,4	28,3	35,6	35,8	40,9
Guztira	21,0	25,0	27,3	33,5	35,3	39,7

4.23.b taula.
Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria aktibo potentzialaren
bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(%tan)

Sexua eta adina	2003	2007	2011	2015	2019	2023
< 35 urteko gizonak	26,4	29,5	40,2	45,6	47,3	58,0
35-44 urte bitarteko gizonak	18,2	20,4	27,0	38,6	41,5	47,7
>= 45 urteko gizonak	12,2	18,3	16,2	20,6	25,9	26,9
Gizonezkoa	19,2	22,8	26,7	31,8	34,9	39,0
< 35 urteko emakumeak	36,1	39,2	42,4	50,0	56,0	65,9
35-44 urte bitarteko emakumeak	18,3	26,9	25,2	39,6	39,6	42,5
>= 45 urteko emakumeak	10,7	14,8	18,1	23,5	24,3	29,0
Emakumezkoa	23,3	27,6	28,1	35,0	35,5	40,5
Guztira	21,0	24,8	27,3	33,3	35,2	39,8

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

4.24.a taula.
Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria aktiboak,
hizkuntzaren arabera
(Datu absolutuak eta atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria aktiboaren %a)

Atzerriko hizkuntza	Datu absolutuak	Dakitenen artekoen %a
Ingelesa	358.868	85,4
Frantsesa	87.590	20,8
Alemana	15.851	3,8
Beste bat	85.462	20,3

4.24.b taula.

Atzerriko hizkuntzak ongi edo oso ongi dakien biztanleria aktiboaren proportzioaren bilakaera (%tan)

Atzerriko hizkuntza	2003	2007	2011	2015	2019	2023
Ingelesa	17,0	19,5	20,6	26,4	28,2	33,9
Frantsesa	6,7	8,1	6,8	8,2	6,9	8,3
Alemana	,9	1,1	,9	1,2	1,4	1,5
Beste bat	1,8	4,0	4,7	5,8	7,8	8,1

4.25. taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, lanbidearen arabera (% bertikalak eta intzidentzia-mailak —%tan— erreferentziako biztanleriarekin alderatuta)

Lanbidea	% bertikalak	Intzidentzia-maila
Zuzendariak eta teknikariak	60,4	57,1
Administrariak	11,0	39,0
Zerbitzu-arloko kualifikatuak	15,6	32,1
Beste langile kualifikatu batzuk	9,4	20,2
Zerbitzu-arloko kualifikatu gabeak	2,6	17,2
Kualifikaziorik gabeko beste langile batzuk	1,0	19,3
Guztira	100,0	40,1

4.26 taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, lanbide-kategoriaren arabera (% bertikalak eta intzidentzia-mailak —%tan— erreferentziako biztanleriarekin alderatuta)

Lanbide-kategoria	% bertikalak	Intzidentzia-maila
Zuzendariak	8,2	51,8
Teknikariak	50,7	58,9
Erdi mailako buruak	1,2	26,8
Langile kualifikatuak	34,1	29,5
Kualifikaziorik gabeko langileak	5,7	20,8
Guztira	100,0	40,1

4.27. taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, erabilitako teknologiaren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-mailak —%tan— erreferentziako biztanleriarekin alderatuta)

Erabilitako teknologia	% bertikalak	Intzidentzia-maila
Moderno, ekoizpen automatizatua	6,0	32,7
Administratiboa, informatizatua	29,6	61,8
Teknologia modernoko beste batzuk	34,8	39,7
Produktzio-talde konbentzionala	4,5	20,5
Administratiboa, konbentzionala	9,8	44,6
Teknologia konbentzionaldun beste batzuk	15,3	29,6
Guztira	100,0	40,1

4.28. taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, jarduera-sektorearen arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-mailak —%tan— erreferentziako biztanleriarekin alderatuta)

Jarduera-sektorea	% bertikalak	Intzidentzia-maila
Nekazaritza	,8	29,9
Industria	19,7	38,2
Eraikuntza	2,4	23,6
Zerbitzuak	77,2	41,6
Guztira	100,0	40,1

4.29 taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, gaur egungo lanpostuan emandako urteen arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-mailak —%tan— erreferentziako biztanleriarekin alderatuta)

Egungo lanpostuan emandako urteak	% bertikalak	Intzidentzia-maila
3 urte baino gutxiago	36,5	54,3
3-9 urte	31,3	41,4
10 urte baino gehiago	32,2	30,1
Guztira	100,0	40,0

4.30. taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, sexuaren eta adinaren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-mailak —%tan— erreferentziako biztanleriarekin alderatuta)

Sexua eta adina	% bertikalak	Intzidentzia-maila
< 35 urteko gizonak	16,8	59,1
35-44 urte bitarteko gizonak	14,5	48,0
>= 45 urteko gizonak	19,2	27,1
Gizonak	50,6	39,0
< 35 urteko emakumeak	17,3	67,1
35-44 urte bitarteko emakumeak	12,3	43,6
>= 45 urteko emakumeak	19,7	30,0
Emakumeak	49,4	41,3
Guztira	100,0	40,1

4.31. taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria aktibo eta potentzialki aktibo ez-landuna, sexuaren eta adinaren arabera
(% bertikalak eta intzidentzia-mailak —%tan— erreferentziako biztanleriarekin alderatuta)

Sexua eta adina	Bizt. aktiboa		Bizt. potentzialki aktiboa	
	% bertikalak	Intzidentzia-maila	% bertikalak	Intzidentzia-maila
< 35 urteko gizonak	21,4	42,8	24,9	53,2
35-44 urte bitarteko gizonak	12,2	40,4	9,6	44,8
>= 45 urteko gizonak	15,2	25,4	13,4	25,3
Gizonak	48,9	34,9	47,9	39,5
< 35 urteko emakumeak	19,9	54,4	26,1	60,7
35-44 urte bitarteko emakumeak	13,5	39,9	10,7	35,2
>= 45 urteko emakumeak	17,8	25,8	15,3	21,7
Emakumeak	51,1	36,8	52,1	36,2
Guztira	100,0	35,8	100,0	37,7

Biztanleria potentzialki aktibo ez-landunari buruzko datuek biztanleria aktibo eta aktibo potentzial ez-landuna biltzen dituzte



TIPOLOGIA, EAEKO BIZTANLERIA AKTIBOAREN KUALIFIKAZIO-MAILARI DAGOKIONEZ

15. Hamar aktibotik 9k baino gehiagok dute gutxienez kualifikazio-faktoreren bat EAEn

Biztanleriaren kualifikazio-maila zehazten duten elementuak aintzat hartuta, biztanleria aktiboaren barruan zenbait mota bereiz daitezke, biztanleria aktiboaren kualifikazioaren inkestan aztertutako kualifikazio-elementuak agertzen diren ala ez begiratuta: prestakuntza arautuaren maila, prestakuntza ez-arautu osagarria, hizkuntzak jakitea eta lan-esperientzia. Definitutako motei buruzko emaitza nagusiak honako taula honetan aurkezten dira¹²:

Biztanleria aktiboa, kualifikazio-maila orokorraren arabera 2023 eta 2019

(Datu absolutuak, % bertikalak eta 2019-2023 bitarteko hazkunde-tasa, %tan)

Kualifikazio-maila orokorra	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	2019-2023 bitarteko hazkunde, %tan
	2023	2023	2019	2019	
Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua	403.868	38,2	396.608	37,5	1,8
Lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarri esanguratsua	41.990	4,0	46.001	4,4	-8,7
Lan-esperientzia esanguratsua, ikasketa kualifikaturik gabe	178.373	16,9	193.140	18,3	-7,6
Ikasketa kualifikatuak, lan-esperientzia esanguratsurik gabe	212.979	20,1	202.973	19,2	4,9
Prestakuntza osagarri esanguratsua, lan-esperientzia esanguratsurik gabe	160.532	15,2	150.966	14,3	6,3
Ez lan-esperientzia esanguratsurik, ez ikasketa kualifikaturik	59.985	5,7	67.507	6,4	-11,1
GUZTIRA	1.057.728	100,0	1.057.196	100	0,1

¹²Tipologiak funtsezko printzipio hauek ditu oinarritzat:

1. Lan-esperientzia esanguratsutzat hartzen dira honako bi egoera hauek:
 - a) Teknologia modernoa duen enplegu batean segidan gutxienez hiru urtez aritzea, gaur egun lanpostu horretan aritu zein ez aritu; eta
 - b) Teknologia modernorik gabeko lanpostu batean gutxienez ere 10 urtez aritu izana, eta gaur egun oraindik lanpostu horretan jarraitzea.
2. *Ikasketa kualifikatutzat* jotzen dira prestakuntza tekniko eta lanbide-espezializazio esanguratsua ematen duten ikasketak, unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako bigarren lanbide-ikasketak barnean hartuta.
3. Azkenik, prestakuntza osagarri esanguratsutzat hartzen da hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi jakitea, baita prestakuntza ez-arautuko ekintzak egin izana ere, betiere enpleguan intzidentzia frogatu badute (lanpostu bat lortzeko edo egungo okupazioan aurrera egiteko balio izan badute). Lan-esperientzia esanguratsurik ez duten pertsonen kasuan, egoera horretan sartzen dira, halaber, lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak edo erdi-mailako edo I. mailako lanbide-heziketa amaitu duten pertsona aktiboak.

Taulan ikus daitekeenez, 2023. urtean biztanleria aktiboaren hiru bosten baino gehixeago (% 59) lotzen dira lan-esperientzia esanguratsu batekin definitutako motekin ¹³. % 38,2k prestakuntza arautu kualifikatuari batzen dio lan-esperientzia, eta % 4k enpleguan eragina duen prestakuntza ez-arautu osagarriarekin, eta/edo atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi jakitearekin. Batez ere lan-esperientziagatik nabarmentzen direnak (prestakuntza arauturen bat edo prestakuntza ez-arautu osagarriren bat ez dutenak) EAEko biztanleria aktiboaren % 16,9 dira.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenak biztanleria aktiboaren % 41 dira. % 20,1ek prestakuntza arautu kualifikatuaren maila handia du, eta % 15,2k prestakuntza osagarri adierazgarriren bat jaso du; erdi-mailako Lanbide Heziketako ikasketak edo Lanbide Heziketakoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenak ere hartu dira barnean azken kasuan.

Guztira, EAEko biztanleria aktiboaren % 94,3k badu faktore esanguratsuren bat kualifikazioari dagokionez, bai prestakuntza arautu kualifikatua, bai lan-esperientzia esanguratsua, bai enpleguan eragina frogatu duen prestakuntza ez-arautu osagarria, bai atzerriko hizkuntzaren bat ongi jakitea, edo lan-esperientziarik ez dutenen kasuan, oinarrizko hezkuntzaren osteko gutxieneko prestakuntza-maila (Lanbide Heziketakoak ez diren bigarren mailako ikasketak, edo erdi-mailako Lanbide Heziketa).

Ondorioz, EAEko biztanleria aktiboaren % 5,7k soilik ez du aztertutako ezaugarri kualifikatzaile horietako bat bera ere betetzen. 1999 eta 2011 bitartean, proportzio hori etengabe murriztu zen: 1999an, % 16,4; 2003an, % 14,1; 2007an, % 10,7, eta, 2011n % 9,1. 2015ean, ordea, ehuneko % 9,8koa zen. 2019an beherako joera osatu zen berriro, % 6,4ra. Azkenik, inolako kualifikaziorik gabeko biztanleria aktiboaren proportzioa % 5,7ra jaitsi zen 2023an, serie historikoko proportziorik txikiena.

Azpimarratu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat honako hau da: egitura hori nabarmen ezberdina da aktibo potentziala den biztanleriaren egituraren aldean. Biztanleria aktibo potentzialak lan-esperientzia esanguratsurik ez izatea dute ezaugarri nagusia, batez ere: eta egoera horretan dago haren % 88 (biztanleria aktiboan, ordea, % 41). Inolako kualifikaziorik ez duten pertsonen proportzioa da beste desberdintasunetako bat; hau da, prestakuntzarik eta lan-esperientziarik ez dutenena. Aktibo potentzialen % 21,9 da talde hori; biztanleria aktiboan, ordea, % 5,7 baino ez da. 2003ko % 50,5etik 2007ko % 42,1era, 2011ko % 35era eta 2015eko % 25,2ra jaitsi ondoren, eta 2019ko % 31,1era igo ondoren, 2023ko balioak nabarmen jaitsi du adierazle hori.

¹³ Gogoan izan behar da esperientzia esanguratsu hori gaur egungo landunena zein ez-landunena izan daitekeela.



16. Lan-esperientzia duen biztanleriaren pisu erlatiboa berreskuratu da, baina, batez ere, esperientziarik gabeko kolektiboaren murrizketaren ondorioz

1999-2007 bitartean, lan-esperientzia esanguratsua zuten kolektiboek zegoen hazkundera zen EAeko biztanleria aktiboaren bilakaeraren ezaugarri nagusia. Hala, 1999ko % 48,5etik, kolektibo horien pisu erlatiboa % 55,3ra igo zen 2003an, eta % 62,3ra, 2007an.

2011n, gorako joera handi hori hautsi zen, baina erreferentziazko proportzioa % 62,5ean finkatu zen; 2007an lortutakoen antzeko mailetan, beraz. 2015ean askoz ere haustura garbiagoa izan zen prozesu horretan, proportzioa % 58,5era jaitsi baitzen, 2003ko kopuruetatik hurbilago, 2007 eta 2011ko kopuruetatik baino. 2019ko % 60,1ek gora egiteko joera berreskuratu zuen, baina modu oso neurritsuan. Ildo horretan, 2023ko jaitsiera txikiak (% 59ra arte) esan nahi du lan-esperientzia duen biztanleria aktiboaren proportzioa 2007an eta 2011n ikusitakoa baino ehuneko 3,3 eta 3,5 puntu txikiagoa dela.

Nabarmentzekoa da, gainera, lan-esperientzia esanguratsua duten pertsona aktiboen pisu erlatiboaren galera biztanleria aktiboaren bolumenaren susperraldi arin baten testuinguruan gertatu dela (% 0,1; horrek eten egin du 2015-2019 aldiko -% 5eko murrizketa esanguratsua).

16.1. 2019 eta 2023 artean apur bat gora egin du prestakuntza kualifikatuko moduei lotutako zatiak

1999. urteaz geroztik, esperientzia esanguratsua eta ikasketa kualifikatuak zituen biztanleria aktiboaren bolumenaren hazkundera EAeko batezbestekoa baino askoz handiagoa zen, eta horrek eragina izan zuen 1999an biztanleria aktiboaren % 19,5 izatetik 2003an % 24,8, 2007an % 32,8, 2011n % 33,8 eta 2015ean % 34,1 izatera igaro zen taldearen hazkundera diferentzian. Kopuru absolutuetan, 1999 eta 2011 bitartean 192.732 pertsona izatetik 377.319 izatera igaro zen.

Erreferentziazko kolektiboak biztanleria aktiboan zuen pisu erlatiboa 2015ean % 34,1era igo arren, bolumena egonkortu egin zen urte horretan, 379.077 pertsonarekin. 2011 eta 2015 bitartean % 0,5 eskas hazi zen; 1999 eta 2007 bitartean, aldiz, % 25etik gorako izan zen, eta 2007 eta 2011 bitartean ere % 13,7tik gorakoa. Era berean, 2015 eta 2019 bitartean, gorakada % 4,6 baino handiagoa izan zen. 2019tik 2023ra bitartean, biztanleria aktibo mota horren hazkundera-eritmoa 1999tik 2011ra bitartekoa baino txikiagoa da (% 1,8), baina berriz ere igo da esperientzia eta ikasketa kualifikatuak dituzten aktiboen kopurua. Hala, 2015etik 2023ra bitartean izandako hazkundera jarraituari esker, 403.868 pertsona daude egoera horretan 2023an.

2019 eta 2023 bitartean, beraz, indarberritu egin zen lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktiboaren ehunekoa, kualifikazio-maila txikiagoko taldeekin lotuta.

Lan-esperientzia esanguratsua eta kualifikazio-maila apalagoa duten taldeen artean, 2019-2023 aldian behera egin du esperientzia esanguratsua duten baina ikasketa kualifikaturik eta prestakuntza osagarri ez duten pertsonen kopuruak. Kasu honetan, 2003 eta 2007 bitartean ikusitako galeren ondoren, 2007 eta 2011 bitartean berrindartu egin zen kolektibo horretako biztanleriaren bolumena, eta 2007-2011 aldian % 7,1eko igoera izan zuen. 2011-2015 aldiko bilakaerak, ordea, talde horren garrantzia galtzea ekarri zuen, aldi horretan –% 20,6 galdu baitu, eta beherakada horrek 2015-2019 aldian jarraitu du, –% 11,5ekin, eta 2019-2023 aldian, –% 7,6rekin. Horrela, biztanleria aktiboan duen pisu erlatiboak behera egiteko joera areagotu egin da: 2003ko maximoa % 27,3koa zen; 2011n, % 24,6ra jaitsi; 2015ean, % 19,6ra, eta 2019an, % 18,3ra; eta 2023an % 16,9ra.

Lan-esperientzia duten taldeetan, 2019 eta 2023 bitartean behera egin du ikasketa kualifikaturik ez duten baina prestakuntza osagarri esanguratsua duten pertsona aktiboen taldeak. 2011 eta 2015 bitartean, aldiz, pisua irabazia zuen taldeak (% 4,1etik % 4,8ra). Gainera, goranzko joera hartu zuen aldi horretako hazkunde-erritmoak: +% 16,7, 2011 eta 2015 bitartean; hazkunde-erritmoa hori 2003-2007 laurtekoaren % 33,9ak soilik gainditu du. 2015 eta 2019 bitartean, kolektibo horrek –% 14,4 egin zuen behera, eta pisu erlatiboa % 4,4koa soilik izan zen. 2019 eta 2023 bitartean, ordea, kolektiboa –% 8,7 murriztu da, eta pisu erlatiboa % 4 izan da, hots, 2003tik aurrera jasotako balio minimoa, beraz, biztanleria aktibo mota horrek 1995ean izan zuen % 5,4tik urrun.

Ikasketa kualifikatuei eta prestakuntza osagarriari lotu gabeko esperientzia esanguratsua duen enpleguak behera egin du 2011 eta 2015 bitartean, eta horren ondorioz, EAEn lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktiboaren bolumena lehen aldiz murriztu da 1999tik. Hala, 1999an 480.256 pertsona izatetik 2011n 698.040 izatera igo ondoren, 2015ean 650.955 pertsona izatera jaitsi zen kopurua, eta 2019an 635.749 kopurura. 2019 eta 2023 bitartean, murrizketa-ildoan lan-esperientzia esanguratsua duten baina ikasketa kualifikaturik ez duten kolektibo guztietara hedatzeak joera hori areagotu du, lan-esperientzia esanguratsua duten 624.231 pertsona aktibo baitaude, 2019an baino –% 1,81 gutxiago.

Hala ere, lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktiboaren kolektibo hori 1999ko kopurua baino % 30 handiagoa da, baina 2007ko 631.153 pertsonatik behera dago jada. Igoera horren aldean, 1999-2023 aldi osoan –% 15 jaitsi da esperientzia esanguratsurik gabeko aktiboen bolumena (2019 eta 2023 bitartean % 2,9ko gorakada izan bazuen ere). Hala ere, lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktiboa handitzeko joera txikiagoa da ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen artean ikusi den % 56,4koa baino, eta horrek



agerian uzten du desfasea dagoela biztanleria kualifikatu horrekin batera lan-esperientziaren hazkundera bermatzeko gaitasunean.

16.2. Esperientzia nabarmenik ez duten pertsona aktibo gehiago daude

Aldi horretan esperientzia duen biztanleriaren goranzko joera izan arren, 2007-2011 laurtekoan eten egin zen 2007ra arte lan-esperientzia esanguratsurik gabeko aktiboaren bolumenean hautemandako beheranzko joera. Hala, 1999 eta 2003 bitartean % 12,7 eta 2003 eta 2007 bitartean % 14,3 jaitsi ondoren, kolektibo horrek % 9,8 egin zuen gora 2007 eta 2011 bitartean. Joera hori sendotu eta areagotu egin zen 2011 eta 2015 bitartean, % 10,2ko igoerarekin. 2015 eta 2019 bitartean EAeko biztanleria aktiboaren murrizketa argi eta garbi lotzen zitzaion lan-esperientzia esanguratsurik gabeko biztanleria aktiboaren laurteko honetako -% 8,7ko beherakadari. Azkenik, 2019 eta 2023 bitartean igo egin da, zehazki, % 2,9ko igoera osatu da.

Zenbaki absolutuetan, 1999an 510.177 pertsona izatetik 2007an 381.567 izatera jaitsi ondoren, 461.821 pertsonakoa izatera igaro zen 2015ean, eta 421.446 kopurura jaitsi zen 2019an, eta, azkenik, 433.496 pertsonakoa da 2023an.

Termino erlatiboetan, kolektibo horrek 1999an zuen % 51,5eko kopurutik 2007an eta 2011n % 37,5 inguruko kopuruetara igaro zen, eta 2015ean % 41,5era igo zen. Proporzioa % 39,9ra jaitsi zen 2019an, baina 2023an % 41era igo da.

16.3. Esperientzia esanguratsurik ez baina ikasketa kualifikatuak dituzten pertsona aktiboaren kopuruak gora egiten jarraitzen du

Lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen taldean, ikasketa kualifikaturik gabeko baina prestakuntza osagarri esanguratsua duten pertsonen kopuruak gorakada handia izan du 2007tik aurrera. Kolektibo horrek % 33,6 egin zuen gora 2007 eta 2011 bitartean, eta % 9,3, berriz, 2011 eta 2015 bitartean. Horrek esan nahi du biztanleria aktiboan duen pisu erlatiboak gora egin duela, eta 1999ko mailetatik hurbil geratu dela: % 14,3, 2015ean, eta % 14,8, 1999an; nolahi ere, 2011ko % 13aren eta 2007ko % 10,7aren gainetik.

2015 eta 2019 bitartean, ordea, 1999-2007 aldiko jaitsierek jarraitu zuten, baina askoz ere motelago: -% 5,0; 1999 eta 2003 bitartean, berriz, -% 12,0ko jaitsiera, eta 2003 eta 2007 bitartean, -% 15,5ekoa. Bestalde, aztertutako azken aldiaren ehunekoak % 6,3 egin du gora. Horri esker, biztanleria aktiboaren egonkortasunaren egoeran, ikasketa kualifikaturik ez duten baina prestakuntza osagarri esanguratsua duten pertsonen taldeak 2023an serieko baliorik handiena lortu du: % 15,2.

Lehenago aztertutako kolektiboarena baino erritmo apalagoan hazi bazen ere, 2011 eta 2015 bitartean gora egin zuen inolako kualifikaziorik gabeko pertsonen kopuruak ere, % 7,6; 1999 eta 2011 bitartean, aldiz, etengabe ari zen jaisten talde horren kopurua. 2015 eta 2019 bitartean gogor hasi zen berriro txikiagotzeko joera, -% 38,3ko balioa osatu baitzen. 2019 eta 2023 bitartean jarraitu egin du:-% 11,1. Prestakuntzarik gabeko kolektibo horrek biztanleria aktiboan zuen pisua 1999ko % 16,4tik 2011ko % 9,1era jaitsi zen, eta 2015ean, % 9,8ra igo. Hala ere, 2019an eta 2023an ehunekoak nabarmen egin du behera, eta azken urtean minimo historikora iritsi da 1999tik, parte hartzeak % 5,7ko ehuneko eskasa osatu baitu.

2011 eta 2015 bitartean, gora egin zuen argi eta garbi % 12,6rekin, 2007-2011 laurtekoan izandako % 4,6aren aldean; hazkunderik nabarmenena esperientziarik ez baina ikasketa kualifikatuak zituzten pertsonen zegokien. Aurreko laurtekoan baino txikiagoa izan bada ere, hazkundeak bere horretan jarraitu du 2015-2019 eta 2019-2023 aldietan, kasu bietan % 4,9rekin.

2007tik 2023ra bitartean, lan-esperientzia esanguratsurik ez baina prestakuntza kualifikatua duten pertsonen bolumen absolutuak gora egin du; hori da lan-merkatuak azkenaldian izan duen bilakaerarik deigarrienetako bat. Deigarriagoa da, gainera, 1999-2007 aldiko beherakada handiekin alderatuta (-% 12,9, 1999 eta 2003 bitartean, eta -% 6,5, 2003 eta 2007 bitartean). Zenbaki absolutuetan, 2007az geroztik izandako susperraldiaren ondorioz, aurreko jaitsierak erabat konpentsatu dira. Horrela, 1999 eta 2007 bitartean 201.564 pertsonatik 164.187ra jaitsi ondoren, 2023ko balioa, 212.979 pertsona, 1999tik izan den kopuru altuena da.

Termino erlatiboetan, 2011-2015 laurtekoan hautsi egin zen biztanleria aktiboaren artean kualifikatutako eta esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen kolektibo horren pisuaren beheranzko joera argia. 1999ko % 20,4tik abiatuta, proportzioa etengabe jaitsi zen 2011ko % 15,4raino; gero, % 17,4ra igo zen 2015ean, 2003ko % 17,6ko balioaren antzeko mailetan. 2019an eta 2023an, proportzioa % 19,2ra eta % 20,1era iritsi zen; 1999ko % 20,4tik behera dago bakarrik.

17. Lan-esperientzia esanguratsua lortzea da, oraindik ere, ez-okupazioa prebenitzeko faktore erabakigarria. 2023an, esperientziarik gabeko kolektiboen ez-okupazioaren tasak 2003koa baino txikiagoa da

Lan-esperientzia esanguratsua bat finkatzea edo ez finkatzea da, nolahi ere, langabeziaren eta ez-okupazioaren maila handiak egotea ala ez egotea eragiten duen aldagai erabakigarria.

Enplegu-krisi handiko arestiko testuinguruetan ere, lan-esperientzia esanguratsua zuen biztanleria aktiboan, ez-okupazioaren tasak maila txikietan jarraitu zuen. Hala, 2003ko eta



2007ko % 1,5-% 1,6tik edo 2011ko % 4,5etik gora egin arren, tasa hori ez zen % 5,4tik igo 2015ean (% 5,9, biztanleria aktibo potentziala kontuan hartuta). Gainera, 2015-2023 laurtekoan izandako susperraldiak berehala ekarri du aldeko egoerara itzultzea, 2019an % 1,5 eskas eta 2023an % 1,2 izan baitziren ez-okupazioaren tasak, 2003ko edo 2007ko kopuruak baino txikiagoak. Biztanleria aktibo potentziala kontuan hartuz gero, tasak baxua izaten jarraitzen du, % 2,4koa, kasu horretan 2003ko % 1,6 edo 2007ko % 1,9 baino handixeagoa.

Ez-okupazioaren tasa, berriz, % 17koa da 2023an (% 26,5, biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartuz gero) lan-esperientzia esanguratsurik ez duten pertsonen artean.

Lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktiboaren tasa 1999tik izandako mailarik baxuenetan dago 2023an, baina ez da gauza bera gertatzen esperientziarik gabeko pertsonekin. Ildo horretan, nahiz eta 2015eko % 40,6ren, 2011ko % 34,0ren, 1999ko % 30,3ren edo 2019ko % 24,7ren oso azpitik egon, 2023ko % 17 oraindik 2007ko % 13,1en gainetik dago. Hala ere, ez du gainditzen 2003. urteko datua (% 19,0).

Biztanleria aktiboa eta potentzialki aktiboa kontuan hartuz gero, 2007ko egoerarekiko aldea handitu egiten da. Biztanleria aktiboan ehuneko 3,9 puntuko aldea dago (2023an, % 17, eta 2007an, % 13,1), aldea ehuneko 7,8 puntura igotzen da biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartuta (% 26,5 eta % 18,7, hurrenez hurren).

Distantzia, berriz, murriztu egin da 2003ko egoerarekin alderatuta. Hala, biztanleria aktiboaren ez-okupazioaren 2023ko % 17 da 2003ko % 19,0 baino bi puntu txikiagoa, baina aldea ehuneko 1,2 puntura jaisten da biztanleria aktibo potentziala kontuan hartzen bada (% 26,5; eta 2003an % 27,7 izan zen).

Datuek berresten dute lan-esperientzia esanguratsua duten pertsonen hobeto jasaten dutela okupazio-krisien eragina, eta azkarrago gainditzen dituztela krisi horiek, esperientzia-maila horiek ez dituztenek baino. Esperientzia esanguratsurik gabeko pertsona aktiboen ez-okupazioaren tasaren eta esperientzia mota hori duten pertsonen ez-okupazioaren tasaren arteko aldea konparatuz gero, ikus daiteke, adibidez, alde hori, 2007an ehuneko 11,5 puntukoa zela (% 13,1 eta % 1,6, hurrenez hurren), 2011n 29,4 puntura igo zela, eta 2015ean 35,2 puntura (% 40,6, % 5,4aren aldean), krisiaren puntu gorenean. Susperraldia gorabehera, oraindik aldea ehuneko 23,2 puntukoa zen 2019an (% 24,7, esperientzia esanguratsurik gabeko pertsona aktiboetan, eta % 1,5, esperientzia duten pertsona aktiboetan). Azkenik, distantzia nabarmen murriztu da 2023an, zehazki, ehuneko 15,8 puntura (% 17 da esperientzia esanguratsurik gabeko pertsona aktiboen artean; eta % 1,2 da esperientzia duten pertsona aktiboen artean).

Azterketa-testuinguru horretan, gogorarazi behar da, hala ere, lan-esperientzia esanguratsua zuen biztanleria aktibo osoak ez zuela saihestu 2007az geroztiko enplegu-krisiaren eragin handia. Ez-okupazioaren tasa % 5etik behera mantentzen zen ikasketa kualifikatuak zituzten pertsonen artean nahiz lotutako prestakuntzarik ez zutenen artean; 2007tik aurrera, berriz, ikasketa kualifikaturik ez baina prestakuntza osagarriren bat zuten pertsona aktiboen ez-okupazioaren tasa nabarmen igo zen. Hala, 2007ko % 1,2tik 2011ko % 11,4ra eta 2015eko % 12,1era igaro zen tasa, 1999ko % 5,2a baino bi aldiz gehiago.

Bestalde, 2019ko eta 2023ko % 3,1ek eta % 3,2k bi puntu inguruko beherakada osatzen dute, 2015eko datuekin alderatuta.

Nahiz eta ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria aktiboaren % 1,2 baino handiagoa izan, eta lan-esperientzia bai baina prestakuntza kualifikatu edo osagarririk ez duenaren % 0,7 baino handiagoa izan, 2023ko % 3,2 berriz ere % 5etik behera dago, lan-esperientzia eta prestakuntza osagarria duen kolektiboan. 2007ko % 1,2a gainditu arren, susperraldiari esker, maila apaletara itzuli da talde horretako ez-okupazioa.

18. Prestakuntza kualifikatuak ez-okupazioaren tasak baxuagoak izaten laguntzen du 2023an, esperientzia esanguratsurik ez duten pertsonen kasuan

Lan-esperientzia esanguratsurik gabeko biztanleria aktiboaren testuinguruan, kasu guztietan ez-okupazioaren tasa handiak hauteman diren arren, 2015ean krisiarekiko erresistentzia-gaitasuna artean handixeagoa zen ikasketa kualifikatuak zituzten pertsonen kasuan. Talde horretan, ez-okupazioaren tasa % 31,7koa zen, eta % 44koa prestakuntza osagarria edo bigarren mailako ikasketa aratuak baina ikasketa kualifikatuak ez zituzten pertsonen kasuan, eta % 51,4koa ikasketa kualifikaturik gabeko pertsonen kasuan (% 35,7, % 46,8 eta % 54,7, hurrenez hurren, biztanleria aktibo potentziala barne hartuta).

2019an, susperraldiaren ondoren, aldea argi eta garbi mantendu zen prestakuntza kualifikatua duten pertsonen eta prestakuntza esanguratsurik, kualifikaturik edo osagarririk ez dutenen artean, ez-okupazioaren tasa % 15,1ekoa eta % 30,5ekoa baita kolektibo aktibo bakoitzaren kasuan. Baina esperientziarik eta prestakuntza osagarririk gabeko pertsonen ez-okupazioaren tasa mailarik altuenean zegoen, % 35,1ekin. Egoera hori, neurri handi batean, kualifikazio txikiena duen kolektiboaren zati bat jardueratik irtetearen ondorio da. Hala, lan-esperientzia esanguratsurik gabeko biztanleria potentzialki aktiboa, aktibo potentzialak barne, kontuan hartzen bada, ez-okupazioaren tasa % 18,8koa da prestakuntza kualifikatua duten pertsonen artean, % 42,3koa prestakuntza osagarria duten pertsonen artean eta % 43koa inolako prestakuntzarik gabeko pertsonen artean.



Azkenik, 2023an, susperraldiaren ondoren, distantzia argi eta garbi handitu zen prestakuntza kualifikatua duten pertsonen eta prestakuntza esanguratsurik, kualifikaturik edo osagarririk ez dutenen artean, ez-okupazioaren tasa % 11,2koa eta % 29,8koa baita kolektibo aktibo bakoitzaren kasuan. Bestalde, esperientziarik eta prestakuntza osagarririk gabeko pertsonen ez-okupazioaren tasa maila altuenean dago orain, % 20ko balioarekin. Antzeko moduan, lan-esperientzia esanguratsurik gabeko biztanleria potentzialki aktiboa, aktibo potentzialak barne, kontuan hartzen bada, ez-okupazioaren tasa % 17,1ekoa da prestakuntza kualifikatua duten pertsonen artean, % 31,3koa prestakuntza osagarria duten pertsonen artean eta % 43koa inolako prestakuntzarik gabeko pertsonen artean.

Hala ere, datuek erakusten dute lan-esperientziarik gabeko pertsonen prestakuntza osagarriaren joera kezagarria dela; izan ere, talde horretako biztanleria potentzialki aktiboan, berriki izandako susperraldi ekonomikoaren ondorioz, ez-okupazioaren tasak 2019ko % 42,3tik 2023ko % 31,3ra baino ez du behera egin. Tasaren beherakada nulua da inolako prestakuntzarik gabeko potentzialki aktiboen artean (% 43) eta oso txikia prestakuntza kualifikatua dutenen artean (% 18,8tik % 17,1era).

Beraz, lan-esperientzia esanguratsurik gabe ere, prestakuntza kualifikatuaren presentzia konparatiboki aldekoa da 2019-2023 aldiko errekupeazioan. Izan ere, 2003an eta 2023an esperientziarik gabeko biztanleria aktiboaren enplegu-tasak alderatuz gero (biak kasuan kasuko krisialdiaren ondoko susperraldi ekonomikoaren antzekoaldiak izan dira), ikusten da prestakuntza kualifikatua duten pertsonen ez-okupazioaren tasa askoz ere txikiagoa dela 2023an (% 11,2, 2003ko % 18,1en aldean; edo, % 17,1 % 21,8ren aldean, berriz, erreferentziazko biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartuta). Aldiz, prestakuntza hori ez duten pertsona aktiboen artean are txikiagoa da: 2023an % 20; eta 2003an, % 21,9, prestakuntza osagarria dagoenean. Aitzitik, 12,5 puntu handiagoa da (% 29,8 eta % 17,3, hurrenez hurren) inolako prestakuntza garrantzitsurik ez dagoenean (% 31,3, % 31,6ren aldean; eta % 43,0, 30,8ren aldean, hurrenez hurren).

Prestakuntza kualifikaturik ez duten pertsonen artean, 2023ko errekupeazioa, beraz, prestakuntza kualifikatua dutenen artean baino okerragoa da, ez-okupazioaren tasak murrizteari dagokionez.

18.1. Erabateko lan-esperientziarik eza mugatua da oraindik, baina prestakuntza esanguratsurik gabeko pertsonen kopuruak gora egin du

Lan-esperientzia esanguratsurik gabeko biztanleria aktiboan, aztertutako mugak oraindik ere ez dira lotzen lehen lan-esperientzia eskuratzeko zailtasunekin, eta arazoaren eragina % 1,5ekoa baino ez da 2023an. 1999tik izan den kopururik txikiena da, 2007an jasotako balio bera (% 1,5).

Lan-esperientziarik gabeko biztanleria aktiboaren taldeak kontuan hartuta, ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik izan ez arren, prestakuntza osagarria dutenei dagokie 2023ko zenbatekorik txikiena: % 0,8 eskasa. Proportzioa % 1,2 da ikasketa kualifikatuak dituztenetan, eta % 4,6 prestakuntza esanguratsurik gabekoetan. 1999ko % 6,8tik oso urrun ez badago ere, azken kolektibo horren proportzioa jaitsi da 2019ko % 5,3rekin alderatuta, eta 2003-2023 aldiko handiena da¹⁴.

¹⁴ 2023an lan-esperientziarik eta prestakuntza-esperientziarik gabeko biztanleria potentzialki aktiboaren % 7,9k 2003-2019 aldiko erregistroak gainditzen ditu.



18.2. Baina lan-prekaritatearen eragina ez da hain erabakigarria

Lan-esperientzia esanguratsurik ez duten taldeetako biztanleria landunean, lan-prekaritatearen eragina da nabarmendu beharreko alderdi nagusietako bat. Horrela, erreferentziazko kolektiboetan, aldi baterako kontratuarekin, obra-kontratuarekin edo kontraturik gabe ere lan egiten duten pertsonen proportzioak behera egin du 2023an, eta ez da aldatzen prestakuntza mailaren arabera. Hala, % 23,6 da prestakuntza esanguratsurik gabeko pertsonen artean; % 23,5, prestakuntza osagarria duten pertsonen artean; eta % 22, ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen artean, Eta hobekuntza erabakigarria osatu da 2019ko kopuruen aldean (% 31,8, % 41 eta % 44,8, hurrenez hurren).

Azterketa-testuinguru horretan, deigarria da egiaztatzea adierazleak goranzko joera argia duela 2011 eta 2023 bitartean, lan-esperientzia esanguratsua duten biztanleria aktiboari dagokionez. Horrela, behin-behinekotasunaren edo kontraturik gabeko harreman-moduen eragina adierazitakoak baino askoz baxuagoa da, % 9,5-12,5 arteko balioekin, lan-esperientzia esanguratsua duten pertsona taldeetan, prestakuntza-maila edozein dela ere.

19. 2007arekin alderatuta, ikusten da ez-okupazioaren tasek neurri handiagoan egin dutela okerrera lan-esperientziarik eta prestakuntza kualifikaturik gabeko pertsonen artean, bai eta, kolektibo horietatik kanpo, gizonezkoen biztanleria aktiboko sektore batzuetan ere.

Kualifikazioaren, sexuaren eta adinaren aldagaiak batera kontuan hartuta, egiaztatzen da 2023an, ez-okupazioaren adierazleari dagokionez, % 10eko edo hortik gorako ez-okupazioaren tasak eta tasa horietan 2023ko egoera 2007koarekin alderatzean 10 puntu inguruko edo hortik gorako igoerak konbinatzen dituzten biztanleria aktiboaren kolektiboek dutela okupazio-egoera okerrenak.

Lan-esperientzia esanguratsua duten pertsonen artean, ikasketa kualifikaturik ez duten baina prestakuntza osagarria duten 35 urtetik beherako emakumeei soilik eragiten die egoera horrek. Kasu horretan, ez-okupazioaren tasa % 6,8koa da. Lan-esperientzia esanguratsua duten pertsona aktiboen ez-okupazioaren % 5eko atalasea gainditzen duen kasu bakarra da.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez duten eta prestakuntza kualifikatua duten pertsonen artean, deskribatutako egoerak 45 urtetik gorako gizonei soilik eragiten die. 2007an, ez-okupazioak ia eraginik izan ez zuen arren, tasa % 19,9koa izan da 2023an.

Lan-esperientzia esanguratsurik eta prestakuntza kualifikaturik gabeko pertsona aktiboen beste kasu batzuetan, ez-okupazioaren tasak % 9,9-15,4koak dira 2023an 35 urtetik beherako gizonen artean eta 45 urtetik beherako emakumeen artean. 2007. urtekoaren aldean, okupazio-tasak gora egin duen arren, 35 urteko emakumeen tasak behera egin du gainerako kasuetan. 2023an, tasa % 14,3ra iritsi zen 45 urtetik gorako emakumeen artean, baina kasu

horretan urrun geratu da 2007ko % 35,6tik. Esperientzia esanguratsurik eta prestakuntza kualifikaturik gabeko kolektibo horietan, 35 eta 44 urte bitarteko gizonei dagokie egoerarik onena: ez-okupazioaren tasa % 7,8koa da, 2007ko % 5,9a baino 2 puntu handiagoa.

Lan-esperientzia esanguratsurik eta prestakuntza kualifikaturik ez duten pertsona aktiboen artean, ez-okupazioaren tasak beti % 15 baino handiagoak dira 2023an, eta, gutxienez, ehuneko 22 puntuko aldea izaten dute 2007ko kopuruen gainetik. Salbuespen positiboena prestakuntza esanguratsurik gabeko 45 urtetik gorako gizonei dagokie. Izan ere, 2023an ez-okupazioaren tasa % 23koa izan da, 2007ko % 15 eta 2019ko % 15,6 baino askoz handiagoa. Tasa hori antzekoa da 35 urtetik beherako emakumeen artean (% 22,1). Prestakuntza osagarria duten 35 eta 44 urte bitarteko gizonen artean, ez-okupazio tasa 2007koa baino ia ehuneko 10 puntu txikiagoa da, baina 2003ko balioa baino handixeagoa da 2023koa (% 17,5). Prestakuntza osagarri mota hori duten 45 urtetik gorako emakumeen artean, ez-okupazioaren tasa ehuneko 9,2 da, 2007ko % 23rekin alderatuta, eta ez-okupazioaren tasa % 30 gainditu du 2023an (% 32,2).

Lan-esperientzia esanguratsurik edo prestakuntza kualifikaturik ez duten taldeen artean, 2023an honako kolektibo hauetan ikusten dira arazo larrienak:

- * Egoera hori 35 urtetik beherako emakume-talderen batean ere ikusten bada ere, ez-okupazioaren tasa handienak, % 30etik gorakoak, 45 urtetik gorako kolektiboetan detektatzen dira oro har. Hala gertatzen da adin horietan prestakuntza osagarriren bat duten emakumeekin (% 32,2) eta inolako prestakuntza esanguratsurik ez duten 35 eta 45 urte bitarteko gizonekin (% 44).

Ikusi den bezala, esperientzia esanguratsurik gabeko 45 urtetik gorako biztanlerian bilakaera konparatu hobea duten taldeetan, prestakuntza osagarria duten gizonek ere ez-okupazioaren tasa handia dute (% 26). Posiziorik onena prestakuntza esanguratsurik gabeko 45 urtetik gorako gizonei dagokie (% 23).

- * 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen egoera ez da prestakuntza osagarriren bat duten emakumeen artean gehien erasandako adin-taldeena bezalakoa, ez-okupazioaren tasa % 17,8 baita. 2007ko % 13 inguruko kopuruen aldean askoz ere okerragoa izanda, ez-okupazioaren eragina handiagoa da prestakuntza esanguratsurik gabeko 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen artean (% 32,2, emakumeen artean, eta % 44 gizonen artean). Ez-okupazioaren tasa askoz txikiagoa da prestakuntza osagarria duten 35 eta 44 urte bitarteko gizonen artean (% 17,5), baina, esan bezala, joera hobea islatzen du 2007ko mailarekin alderatuta (% 27,2).
- * Ez-okupazioaren tasa handiak dira, halaber, prestakuntza esanguratsurik ez duten edo prestakuntza osagarriren bat duten 35 urtetik beherako gizon eta emakumeen artean. Kasu



horietan, ez-okupazioaren tasak, oro har, % 13,7 eta % 22,1 artekoak dira. Baina salbuespen garrantzitsu bat dago: prestakuntza esanguratsurik ez duten 35 urtetik beherako gizonena; talde horretan, 2023ko ez-okupazioaren tasa % 49,9ra iritsi da.

LAN-ESPERIENTZIA ESANGURATSUA LORTZEKO AUKERAK MUGATZEN DITUZTEN EGOERAK

Lan-esperientzia esanguratsua ez izateak nabarmen areagotzen ditu langabezia eta okupazio-eza, baita enpresarekiko harreman ezegonkorra ere; hala, komeni da zehaztea zerk eragiten duen lan-esperientzia esanguratsua ez lortzeko arrisku nagusia. Halaber, adierazi behar da zein taldek duten esperientzia faltaren arazo hori jasateko arrisku handiena, ikuspegi demografiko hutsaren nahiz lortutako heziketa arautuaren mailaren arabera.

20. Okupazio-ezaren arrisku-faktoreak 2023an

20.1. Kualifikazio txikiena duten lanbideak eta kategoriak

Lanbide-dimentsioari dagokionez, 2023an, lan-esperientzia esanguratsua EAeko biztanleria landunaren % 63,2 baino handiagoa zen zuzendaritzako langileen eta teknikarien kasuan (% 70,6). % 68,1eko kopuruak osatuta, proportzioa EAeko zifra orokorren gainetik dago administrarien artean. Adierazle orokorraren azpitik daude zerbitzu kualifikatuetako langileak (% 57,7) eta bestelako langile kualifikatuak (% 58,5). Proportzioa nabarmen jaisten da kualifikaziorik gabeko zerbitzuetako langileen artean (% 42,2), baita kualifikaziorik gabeko beste langile batzuen artean ere (% 40).

Lan-esperientzia esanguratsurik ez lortzea eta kualifikazio profesionalik ez edukitzea estuago lotuta ageri dira, lanbide-kategoriaren aldagaia kontuan izanez gero. Hala, kualifikaziorik gabeko langileen kategoriak du lotura garbiena lan-esperientzia esanguratsurik ez izatearekin, haietako % 43,6k baino ez baitu esperientzia esanguratsua lortzen. Proportzioa % 60,5ekoa da langile kualifikatuen artean, eta % 69,1ekoa, teknikarien artean. Erdi-mailako agintarien eta zuzendarien arteko biztanleria landun osoaren mailak gainditzen ditu, % 78,7 eta % 80 arteko zenbakiekin.

Lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsona landunen % 66,5 ez dira ez zuzendaritzako kide, ez teknikari edo erdi-mailako kargudun.

20.2. Zerbitzuen sektoreko arlo batzuk eta, neurri txikiagoan, industriaren eta eraikuntzaren arlo batzuk

Lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria landunaren proportzio txikiak zerbitzuen sektoreko arlo batzuei dagozkie, batez ere haiekin lotutako pertsona kopurua kontuan hartzen

bada. Mailarik txikiena etxeko zerbitzuari dagokio (% 28,8), baina EAEko adierazle orokorra baino proportzio nabarmen txikiagoak ere ikusten dira elikagaien industrian (% 49,6), industria petrokimikoan (% 47,6), beste manufaktura-industria batzuetan (% 44,3), energia-produkzioan (% 47,3) eta ostalaritzan (% 46,9).

Zerbitzu-sektoretik kanpo, 2023an ere konparatiboki txikiak dira eraikuntzan (% 50,1), beste merkataritza-zerbitzu batzuetan (% 54,4), kautxuaren industrian (% 56,8) eta nekazaritzan (% 56,9) esperientzia esanguratsua zuten pertsonen proportzioak. Proportzioak zertxobait handiagoak dira, eta metalurgiaren, makinagintzaren, merkataritzaren eta garraioen arloek % 60 gainditu dute.

2023an, lan-esperientzia esanguratsua duten pertsonen proportzioa % 70etik hurbil edo hortik gora dago ekonomiaren gainerako arloetan, eta baliorik handiena Administrazio Publikoan osatu da (% 77,3).

20.3. 10 enplegu baino gutxiago dituzten lantokiak, bereziki 10-9 enplegu dituztenak

Lan-esperientzia esanguratsua duten landunen proportzioa handiagoa izan ohi da zentro handienetan. Ildo horretan, % 70etik hurbil dago 500 langile edo gehiago dituzten lantokietan: % 69,5.

Proportzioa % 67,1 eta % 67,9 balioen artean dago, 50-499 langile dituzten lantokietan. Bestalde, 20-49 langile dituzten lantokietan, % 64,3 da. Langile 1 edo 2 dituzten lantokiak % 61 jada EAEko batezbestekotik behera dago. Hiru edo 10 langile artean dituzten lantokietan, ehuneko askoz ere txikiagoa da: % 55,1 eta % 56,1.

Nahiz eta 2015eko krisialdian bezain modu deigarrian izan ez, lantokiaren tamaina zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta lan-esperientzia esanguratsurik ez izateko arrisku handiagoa dago oraindik ere.

20.4. Teknologia konbentzionalaren bitartez gauzatzen diren lanak

Teknologia faktore erabakigarri bat da lan-esperientzia esanguratsua lortzeko. Horrela, teknologia modernoarekin lan egiten duten pertsonen % 76,3k lan-esperientzia esanguratsua finkatu du, baina proportzioa % 41,9koa da teknologia konbentzionalen kasuan (2007ko % 41,8ren, 2015eko % 45en eta 2019ko % 47,5en aldean, goranzko joera eten da).

20.5. Enpresarekin kontratu-harremanaren modalitate ezegonkorak

Logikoa den moduan, lan-esperientzia esanguratsua lortzeak lotura dauka lanpostu egonkorra edukitzearekin, lanpostu hori norberaren konturakoa izan zein kontratu mugagabe baten



bidezkoa izan. Hala, kontratu mugagabea duten soldatapekoen % 65,5ek izan du lan-esperientzia esanguratsua (% 74,7 zen 2007an), eta norberaren kontura aritzen direnen kasuan, berriz, % 76,5ek. Lan-esperientzia esanguratsua dutenen artetik % 93k norberaren kontura jarduten du edo enpresarekin kontratu mugagabea du.

Aldi baterako edo obrako kontratua dutenen proportzio oso handiak, aldiz, ez du lan-esperientzia esanguratsurik. Hona hemen kopuruak: % 65,8 eta % 74,2 (% 72,3, beste egoera batean daudenen artean, eta % 31,1 kontraturik gabekoen artean). Hala eta guztiz ere, beste egoera batean dagoen kolektiboa barnean hartuta, biztanleria landun mota hori esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen % 23,9 baino ez da (% 44,8 2015ean eta % 42,2 2019an). Zati handiena oraindik 2023an kontratu mugagabea duten edo norberaren kontura lan egiten duten pertsoneri dagokie (% 65,1 eta % 10,9, hurrenez hurren).

20.6. Okupaziorik eza

Begien bistakoa denez, lanposturen bat lortzea funtsezkoa da lan-esperientzia esanguratsua bermatzeko. Gaur egun edo iraganean lan-esperientzia esanguratsua duten pertsonen proportzioa % 63,2 da gaur egun okupatuta dauden biztanleen artean, 2019ko % 66,4ren, 2015eko % 69,2ren, 2007ko % 65,2ren eta 2011ko % 70,7ren azpitik. Biztanle aktibo ez-okupatuaren artean, % 9,3 da (% 16,9 2007an); eta biztanle aktibo potentzialen % 12 (% 7,2 2007an). Lan-esperientzia esanguratsua duten pertsonen % 97,6 landunak dira gaur egun.

Hala eta guztiz ere, aurreko kopuruek erakusten duten bezala, egungo landunen zati handi batek (% 36,8k) ez du lan-esperientzia esanguratsurik. Izan ere, 2023an, lan-esperientzia esanguratsurik ez duen biztanleria aktiboaren eta potentzialki aktiboaren % 73,5 dira landunak. Dena den, kopuru hori 2019ko % 68,3 baino handiagoa da.

21. Arrisku-talde nagusiak

2023an, biztanleria potentzialki aktiboaren % 43,6k ez zuen lan-esperientzia esanguratsurik, eta proportzio horrek 1,6 puntu egin du gora, 2019. urtekoarekin alderatuta. Honako hauek dira lan-esperientzia esanguratsua lortzeko zailtasun handiagoak dituzten arrisku-talde nagusien ezaugarri aipagarrienak (biztanleria potentzialki aktibo osorako aztertuta):

21.1. Emakumeak

2023an, oraindik, lan-esperientzia esanguratsua lortzeko zailtasuna handiagoa da emakumeen artean: Emakumeen % 44,7k ez du horrelako esperientziarik (gizonen % 42,7ren aldean). Hala ere, emakumeen egoera zertxobait hobetu da 2007ko % 45,8rekin alderatuta, baina gizonezkoen adierazleak okerrera egiten jarraitzen du 2007ko % 34,1etik. Gainera, genero-arrakala ehuneko bi puntukoa baino ez da.

Hala ere, ekoizpen-sisteman esperientzia esanguratsua lortzeko aukera gutxiago izatearekin batera, ez-okupazioaren tasa handiagoa da oraindik emakumezko biztanleria potentzialki aktiboan: % 14,4, % 11,5en aldean, gizonen artean. Alde hori nabarmen murrizten da aurreko aldiarekin alderatuta, artean bost puntu baino gehiagokoa baitzen.

21.2. Gazteak

Gazteek dute lan-esperientzia esanguratsurik ez lortzeko arrisku handiena. Proporzioa % 98,6koa da 25 urtetik beherakoen artean; % 77,8koa, 25 eta 29 urte bitartekoen artean, eta % 64koa, 30 eta 34 urte bitartekoen artean. Hala ere, 35 eta 39 urte bitartekoen artean, kopuruak % 45etik gorakoak dira oraindik, % 45,6 osatuta. Horrek agerian uzten duenez, 40 urtetik behera, adin-talde desberdinetan, biztanleriaren % 45ek baino gehiagok ditu arazoak esperientzia esanguratsua sortzen duten enplegu moduak lortzeko.

Hala ere, proporzioa oraindik % 26,3 eta % 40,7 artekoa da 40 urtetik gorako biztanleriaren taldeen artean. Adin-talde horietan, adierazleak okerrera egin du 2007koekin alderatuta, 12 puntutik gorako hazkundeekin 40-44 urtekoen artean (2007ko % 27,8tik 2023ko % 40,7ra) eta ehuneko 10 puntutik gorako igoerekin, 55 urtetik gorakoen artean (% 16,0tik % 26,3ra). Igoera 4,8 puntukoa da 45-49 urteko biztanlerian (% 27,0tik % 31,8ra). Aipatutakoen antzeko igoerak ikusten dira, ordea, 25-34 urtekoen artean ere (% 70,3tik % 77,8ra, 25-29 urtekoen artean) eta 50-54 urtekoen artean (% 21,5etik % 30,9ra). Azkenik, aldea 12 puntutik gorakoa da (% 41,4tik % 64ra), 30 eta 34 urte bitartean.

Ikus daitekeenez, aztergai diren adin taldeetan, 55 urteko eta gehiagoko biztanleria potentzialki aktiboan bakarrik dago adierazlea esperientzia esanguratsurik ezaren % 30etik behera.

Gazteek zailagoa dute lan-esperientzia esanguratsua lortzea, gizonen nahiz emakumeen. 35 urtetik beherako gizon potentzialki aktiboen % 80,4k ez du horrelako esperientziarik; proporzio hori % 75,5ekoa da emakumeen artean. 35 urtetik gorakoen artean, nabarmenezkoa da emakumeek zailtasun handiagoak dituztela lan-esperientzia adierazgarriak lortzeko; izan ere, balioak oraindik % 46,4koak dira 35 eta 44 urte bitartekoen artean, eta % 30,9koak, 45 urtetik gorakoen artean. Proporzioa % 39koa da 35 eta 44 urte bitarteko gizonen artean, eta gizonezkoen balio txikiena % 27,4koa da, 45 urte edo urte gehiagoko gizonen artean.

Adierazlea nabarmen okertu da 2023an, gizonen kolektibo guztietan, 2007arekin alderatuta: ehuneko 8 puntutik gora. Okertzerik handiena 35 urtetik beherako gizonen artean osatu da (% 60,7tik % 80,4ra, ia ehuneko 20 puntu igo da). 45 urtetik gorakoen ere geratu da, % 13,5etik % 27,4ra igo baita (ehuneko +13,9 puntu). Igoera ehuneko 10 puntukoa da 35 eta 44 urte bitarteko gizonen artean (% 28,6tik % 39ra).



Emakumeen artean, nariadurarik handiena, ehuneko 14 puntukoa, 35 urtetik beherako emakumeena da, % 61etik % 75,5era igo baita. 35-44 urte bitarteko emakumeen kasuan, igoerak 6,8 ehuneko-puntukoak izan dira, baina adin horretatik gorakoen artean beherakada osatu da: -% 3,8.

Bilakaera horren ondorioz, murriztu egin da gizonen eta emakumeen arteko aldea, eta, 35 urtetik beherako biztanlerian, esperientzia esanguratsurik eza handiagoa izan da gizonen artean 2023an: % 80,4, % 75,5en aldean; 2007an, berriz, sexuen araberrako datuak oso gertu zeuden (% 60,7, gizonen kasuan, eta % 61, emakumeen kasuan).

2023an, ez-okupazioaren tasa handienak, nolana ere, lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen proportzio handiena duten adin-taldee dagozkie. Hala gertatzen da, alde batetik, 35 urtetik beherako pertsonen kasuan: % 18,7 gizonen artean, eta % 18,8 emakumeen artean. Eta, bestetik, gainerako emakume taldeen kasuan: 35 eta 44 urte bitartekoen % 13, eta 45 urtetik gorakoen % 13,1. Kopuruak % 9-9,4koak dira gizonen artean, adin-tarte horietan.

21.3. Ikasketa kualifikaturik gabeko pertsonak, baina baita unibertsitate-adar batzuetakoak ere

Lan-esperientzia esanguratsurik ez duen biztanle potentzialki aktibo gehienak (guztien % 53,3; dena den, 2007ko % 58a baino txikiagoa da) ikasketa kualifikaturik gabeko pertsonak dira. Ehuneko 20,8 lehen mailako ikasketak edo gutxiago duten pertsonen dagokie, % 18,3 Lanbide Heziketakoak ez diren bigarren mailako ikasketetako tituludunei eta % 14,2 erdi-mailako Lanbide Heziketako titulua dutenei.

Ikasketa-maila horietan guztietan, lan-esperientzia esanguratsurik gabeko biztanleriaren proportzioa EAeko adierazle orokorra baino handiagoa da, eta konparatiboki oso maila handietara iristen da, ez soilik ikasketarik gabeko pertsonen artean (% 55,3), baita lehen mailako ikasketak (% 51,5), Lanbide Heziketakoak ez diren bigarren mailako ikasketak (% 58,9) eta erdi-mailako LHko tituludunen artean ere (% 50,4).

Kolektibo horietan guztietan ikus daiteke, 2007. urtearekin alderatuta, 2023an gora egin duela lan-esperientzia esanguratsurik ez izateak. Igoera ehuneko 13,5 puntukoa da lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenen artean (% 45,4tik % 58,9ra), baina lehen mailako ikasketak dituztenen artean ere ehuneko 9,8 puntukoa da (% 41,8tik % 51,5era). Beste bi taldeetan igoerak txikiagoak dira, baina esanguratsuak: % 45,2tik % 50,4ra erdi-mailako Lanbide Heziketa dutenen artean (ehuneko +5,2 puntu) eta ehuneko 3,5 puntu lehen mailako ikasketarik gabekoen artean (% 51,8tik % 55,3ra).

Kontuan hartutako adierazlea % 40tik hurbil edo behera geratu da prestakuntza kualifikatuetan 2023an, nahiz eta biztanleria potentzialki aktiboan oraindik lan-esperientzia esanguratsurik ez

dutenen artean maila handiekin izan: % 40,7 goi-mailako Lanbide Heziketan; % 33,5 hirugarren mailako goi-mailako ikasketetan; eta % 31,9, hirugarren mailako erdi-mailako ikasketetan.

Prestakuntza kualifikatuenean artean, ordea, oso egoera desberdinak ikus daitezke. Alde batetik, alde txarrean, lan-esperientzia esanguratsurik ezaren proportzioak % 30etik hurbil edo hortik gora behatu dira zenbait kasutan: Administrazioaren arloko goi-mailako Lanbide Heziketa dutenak (% 37,4), Metalaren, Automozioren eta Elektronikaren arloan (% 46,1) eta Beste Lanbide Heziketa batzuen arloan (% 36,8); erdi-mailako unibertsitate-ikasketen esparruan, Oinarrizko Hezkuntzako irakasleen arloan (% 30,9); erdi-mailako beste ikasketa batzuen arloan (% 35); eta goi-mailako unibertsitate-ikasketen arloan; prestakuntza horiek potentzialki aktiboak diren pertsonen artean lan-esperientzia esanguratsurik ezaren kasuen % 33,5 biltzen dute. Antzeko egoera dago goi-mailako ingeniarietan (% 39,6), Ekonomian (% 31) eta Zuzenbidean (% 40).

Kasu horietan, eta 2007ko datuekin alderatuta, lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen proportzioa ia 20 puntu igo da Metalari, Automoziari eta Elektronikari lotutako goi-mailako Lanbide Heziketan (% 27,2tik % 46,1era, 2007. eta 2023. urte artean). Kontrako posizioan, egoera zertxobait hobetu da goi-mailako beste Lanbide Heziketa batzuetan (% 43,4tik % 36,8ra) eta, modu deigarriagoan, goi-mailako Lanbide Heziketa horien administrazio-adarrean (% 48,4tik % 37,4ra).

Ehuneko handiekin bada ere, lan-esperientzia esanguratsurik ezaren eragina argi eta garbi urruntzen da EAEko adierazle orokorretik erdi-mailako ingeniarietan (% 28,6). 2007ko datuekin alderatuta, arazo horren eragina murriztu egin da Zientzia Ekonomikoetan (% 35,0tik % 31ra), baina adierazlearen narriadura nabarmena izan da erdi-mailako ingeniarietan (% 20,4tik % 28,6ra) eta, batez ere, Zuzenbideko ikasketetan (% 21,6tik % 40ra).

Lan-esperientzia esanguratsurik ezaren eta ez-okupazioaren tasaren arteko erlazioa agerikoa da egindako ikasketen arabera. Hala, ez-okupazioaren tasarik handienak prestakuntza ez-kualifikatuei dagozkie, % 18,8-29,5 arteko aldakuntzekin. Tasak % 11,4 eta % 15,1 artekoak dira erdi-mailako Lanbide Heziketako adar ez-administratiboetan, % 19 lehen mailako ikasketetan, % 23,3 Lanbide Heziketakoak ez diren bigarren mailako ikasketetan, % 15,7 administrazio-adarreko erdi-mailako Lanbide Heziketan eta % 29,5 gehienez ere lehen mailako ikasketarik ez duten pertsonen artean.

Oro har, tasak askoz txikiagoak dira ikasketa kualifikatuak dituztenean. Hala, ez-okupazioaren tasa % 10etik behera dago prestakuntza kualifikatuetan, salbuespen gutxi batzuekin: administrazio-adarreko goi-mailako Lanbide Heziketa (% 11,5), goi-mailako beste lanbide-heziketa bat (% 10,3) eta bestelako gizarte-zientziak (% 14,2).



Prestakuntza mota horietan % 30 baino proportzio handiagoko kasu guztietan ez dira ikusten % 10etik gorako ez-okupazioaren tasak. Hala, esperientzia esanguratsurik ezaren atalase hori gainditzen den kasu batzuetan, ez-okupazioaren tasak nahiko baxu mantentzen dira: Zientzia Ekonomikoetan (% 5,4); OLT eta Erizaintzaren arloetan (% 5,9) eta Metaleko, Autozioko eta Elektronikako goi-mailako Lanbide Heziketan (% 7,6) eta Oinarrizko Hezkuntzako irakasleen ikasketetan (% 7,2). Zuzenbidean (% 9,8), Goi-mailako Bestelako Lanbide Heziketan (% 9,5) eta erdi-mailako Bestelako Ikasketetan (% 8,3), ordea, % 10etik hurbilxeago daude tasak.

Gainerako prestakuntzetan, biztanleria potentzialki aktiboaren ez-okupazioaren tasak % 5etik behera jaitsi dira. Goi-mailako ingeniartzetan, % 4,5 osatu da; Natur Zientzietan eta Medikuntzan, % 4,3; Erdi-mailako ingeniartzetan, % 2,8; eta Filologian, % 2,3.

21.4. Sexuaren, adinaren eta ikasketa-mailaren arabeko hurbilketa sintetikoa

Sexuaren, adinaren eta ikasketa-mailaren arabeko baterako hurbilketak erakusten du 2023an honako bloke eta azpi-bloke hauek daudela EAeko biztanleria potentzialki aktiboan:

- * Egoera onenean dagoen taldea ikasketa kualifikatuak dituzten 35 urtetik gorako gizonena eta hirugarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik gorako emakumeena da; horretan, lan-esperientzia esanguratsurik gabeko egoeren proportzioa % 25etik beherakoa da, eta ez-okupazioaren tasak % 5etik hurbil edo beherakoak. Talde horretan hauexek sartzen dira: goi-mailako Lanbide Heziketa duten adin-talde horretako gizonak (lan-esperientzia esanguratsurik ezaren proportzioa, % 24,8, eta ez-okupazioaren tasa, % 4) eta hirugarren mailako ikasketak dituztenak (% 19,6 eta % 6,9). Esperientzia esanguratsurik ezaren proportzioa % 22,8koa da hirugarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik gorako emakumeen artean; eta ez-okupazioaren tasa, % 4,5ekoa.
- * Bigarren multzoan, lan-esperientzia esanguratsurik ez duten pertsonen proportzioa askoz ere handiagoa da, % 30etik gorako ehunekoekin, baina ez-okupazio tasa ertainekin, % 15etik behera betiere.

Bloke horretan hiru kolektibo mota daude. Lehenik eta behin, ikasketa kualifikatuak dituzten < 35 urteko gizonak. Kasu horretan, lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenen proportzioa % 50etik gorakoa da, % 77,7koa goi-mailako Lanbide Heziketaren kasuan eta % 69,2koa unibertsitate-ikasketen kasuan. Ez-okupazioaren tasa % 13,1ekoa da goi-mailako Lanbide Heziketan, eta % 13koa hirugarren mailako ikasketetan.

Bigarrenik, kualifikazio- eta adin-profil bereko emakumeak daude, 35 urtetik beherakoak, beraz. Egoera oso hurbil dago kasu honetan, % 50etik gorako proportzioak baititu lan-esperientzia

esanguratsurik ezak, eta % 8 inguruko ez-okupazioaren tasak. Egoera ez da hain ona goi-mailako Lanbide Heziketa duten emakume gazteen artean (% 82,4ko esperientzia esanguratsurik eza, gizonen arteko % 77,7ren aldean, eta % 24,6ko ez-okupazioa, gizonen arteko % 13,1en aldean). Baina kontrakoa gertatzen da hirugarren mailako ikasketak dituzten emakumeen artean (esperientzia esanguratsurik ezaren proportzioa % 64,3koa, emakumeen kasuan, eta % 69,2koa, gizonen artean, eta ez-okupazioaren tasa % 8 emakumeena, eta % 13koa gizonena).

Hirugarren mota bat 35 urtetik gorako gizonek osatutako mota batzuei dagokie; horietan ez-okupazioaren tasak % 12,3ren eta % 14,5en artekoak dira, eta lan-esperientzia esanguratsurik ezaren proportzioak, % 50 baino txikiagoak. 35 urtetik gorako gizonen multzo horretan sartzen dira lehen mailako ikasketak dituztenak; esperientzia esanguratsurik ezaren proportzioa % 42,4 da; ez-okupazio tasa, % 12,3; eta lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenak (% 40,8 eta % 14,5).

Talde berezi bat, azken mota horren oso antzeko ezaugarriak dituena, goi-mailako Lanbide Heziketa duten 35 urtetik gorako emakumeena da. Batez ere gizonen osatutako hirugarren mota horrekin % 50etik beherako esperientzia esanguratsurik ezaren proportzioa partekatzen du, 2023an % 34,5ekoa baitzen. Ez-okupazioaren tasa, berriz, % 12,1ekoa da, eta hurbil samar dago bai hirugarren talde horretatik, bai ikasketa kualifikatuak dituzten 35 urtetik beherako emakumeek osatutako bigarren motakotik.

- * Hirugarren eta azken blokean, lan-esperientzia esanguratsurik ez duten pertsonen proportzioa % 50etik hurbil dago (eta, nolana ere, beti % 40tik gorakoa), eta ez-okupazioaren tasak % 20 ingurukoak edo handiagoak dira.

Kasu horretan ere mota ezberdin batzuk ikus daitezke. Lehen kasuan, erdi-mailako Lanbide Heziketa duten 35 urtetik gorako emakumeen kasuan, lan-esperientzia esanguratsurik ezaren proportzioa % 50 baino txikiagoa da, % 42,9. Ez-okupazioaren tasa % 16,2 da. Antzeko egoeran daude lehen mailako ikasketak dituzten 35 urtetik gorako emakumeak, esperientziarik ezaren proportzioa % 47,5 da, eta ez-okupazioaren tasa % 17,5.

Bigarren mota bat osatzen dute okupaziorik ezaren proportzioa % 50en gainetik duten kolektiboek: ez-okupazioaren tasa % 15etik % 30era bitartekoa da. Mota horretan sartzen dira, batez ere, emakumeen taldeak: erdi-mailako Lanbide Heziketa duten 35 urtetik beherako emakumeak (% 64,6 eta % 14,9) eta Lanbide Heziketakoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten adin horretatik gorako emakumeak (% 54 eta % 25,4).

Mota horretan gizonen talde batzuk ere sartzen dira. Gizon horien artean sartzen dira honako hauek: Lanbide Heziketakoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenak (% 85,4 eta %



29,9); ikasketarik gabeko 35 urtetik gorako gizonak (lan-esperientzia esanguratsurik ezaren proportzioa % 53,8 da, eta ez-okupazioaren tasa % 26,5) eta erdi-mailako LHko titulazioa duten gizonak (% 91,5 eta % 18,2).

Azken motan sartzen dira % 50etik gorako esperientziarik eza duten eta % 40ko mailatik gertuko edo horren gaineko ez-okupazioaren tasak dituzten pertsonen kolektiboak. Egoera hori emakumeen hiru talderen ezaugarria da: ikasketarik gabeko 35 urtetik beherakoak (% 100 eta % 0), ikasketa-maila hori duten 35 urtetik gorakoak (% 48,5 eta % 35,7) eta lehen mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherakoak (% 100 eta % 50,6).

Honako hauek ere egoera horretan daude: Lanbide Heziketakoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherako emakumeak (% 97,5 eta % 37,5) eta lehen mailako ikasketak dituzten gizonak (% 97,5, lan-esperientzia esanguratsurik gabe; eta % 46,7, okupaziorik gabe).

Aurretik aurkeztutako datuek erakusten dutenez, oro har, emakumeen egoera konparatiboki okerragoa da laneratzeari buruzko adierazleei dagokienez, ez-okupazioaren eta lan-esperientzia esanguratsurik ezaren tasa handiagoak baitituzte.

Konparatiboki egoera okerrago hori ia orokorra da prestakuntza kualifikatuen esparruan, salbuespen bakarrarekin: hirugarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherako pertsonak. Talde horretan, emakumeek posizio hobexea dute (% 64,3ko esperientziarik eza, gizonen % 69,2koaren aldean, eta % 8ko ez-okupazioa, gizonen % 13koaren aldean).

Emakumeak konparatiboki egoera okerragoan daude prestakuntza maila baxueneko kolektiboetan, baina ñabardura handiagoekin. Alde batetik, kasu horretan ikusten da maila ertaineko Lanbide Heziketa duten 35 urtetik beherako gizonen posizio bereizgarri negatiboa (% 91,5eko esperientzia esanguratsurik eza, emakumeen % 64,6koaren aldean, eta ez-okupazioaren tasei dagokienez, % 18,2, emakumeen % 14,9ren aldean).

Era berean, lehen mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherako pertsonen kasuan, ez-okupazio tasa txikiagoa da gizonen artean (% 46,7 eta % 50,6, hurrenez hurren), eta lan-esperientzia esanguratsurik ezaren proportzioa handiagoa da gizonen artean (% 97 eta % 100, hurrenez hurren).

Beste kasu batzuetan, nahiz eta lan-esperientzia esanguratsurik ezaren tasa txikiagoa badute ere, ez-okupazioaren tasa handiagoa dute gizonezkoek. Alde handirik ez badago ere, hala gertatzen da talde batzuetan, zehazki, ikasketarik gabeko 35 urtetik gorako pertsonen kasuan (% 35,7, emakumeen kasuan, eta % 26,5, gizonen kasuan) eta Lanbide Heziketakoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherako pertsonen kasuan (% 37,5, emakumeen kasuan, eta % 29,9, gizonen kasuan).

Eranskina: EAEko biztanleria aktiboaren kualifikazio-egoerarekin loturiko tipologiari buruzko taulak

5.1. taula.
Biztanleria aktiboa eta potentzialki aktiboa, kualifikazio-maila orokorraren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Kualifikazio-maila orokorra	Jarduerarekiko lotura					
	Bizt. aktiboa		Aktibo potentziala		Potentzialki aktiboa	
	Absolutuak	% bertikalak	Absolutuak	% bertikalak	Absolutuak	% bertikalak
Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua	403.868	38,2	4.946	7,8	408.814	36,5
Lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarri esanguratsua	41.990	4,0	0	,0	41.990	3,7
Lan-esperientzia esanguratsua, ikasketa kualifikaturik gabe	178.373	16,9	2.671	4,2	181.045	16,1
Ikasketa kualifikatuak, lan-esperientzia esanguratsurik gabe	212.979	20,1	15.407	24,3	228.386	20,4
Prestakuntza osagarri esanguratsua, lan-esperientzia esanguratsurik gabe	160.532	15,2	26.493	41,8	187.025	16,7
Ez lan-esperientzia esanguratsurik, ez ikasketa kualifikaturik	59.985	5,7	13.901	21,9	73.886	6,6
Guztira	1.057.728	100,0	63.418	100,0	1.121.146	100,0

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.2.a taula.
Biztanleria aktiboa eta potentzialki aktiboaren bilakaera, kualifikazio-maila orokorraren arabera
(Datu absolutuak)

Kualifikazio-maila orokorra	Bizt. Aktiboa						Potentzialki aktiboa					
	2003	2007	2011	2015	2019	2023	2003	2007	2011	2015	2019	2023
Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua	246.899	331.891	377.319	379.077	396.608	403.868	247.255	332.354	377.964	381.009	399.950	408.814
Lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarri esanguratsua	32.002	42.864	46.043	53.740	46.001	41.990	32.002	43.743	46.043	53.740	46.001	41.990
Lan-esperientzia esanguratsua, ikasketa kualifikaturik gabe	272.321	256.399	274.678	218.137	193.140	178.373	272.534	257.078	277.826	219.271	194.390	181.045
Ikasketa kualifikatuak, lan-esperientzia esanguratsurik gabe	175.567	164.187	171.811	193.448	202.973	212.979	183.706	171.409	177.243	205.530	212.326	228.386
Prestakuntza osagarri esanguratsua, lan-esperientzia esanguratsurik gabe	128.896	108.864	145.473	158.938	150.966	160.532	147.107	115.973	152.986	167.221	169.753	187.025
Ez lan-esperientzia esanguratsurik, ez ikasketa kualifikaturik	140.733	108.516	101.734	109.435	67.507	59.985	168.204	120.400	110.759	117.333	82.292	73.886
Guztira	996.418	1.012.720	1.117.059	1.112.776	1.057.196	1.057.728	1.050.807	1.040.958	1.142.821	1.144.105	1.104.711	1.121.146

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.2.b taula.
Biztanleria aktiboa eta potentzialki aktiboaren bilakaera, kualifikazio-maila orokorraren arabera
(Hazkunde-tasak, %tan)

Kualifikazio-maila orokorra	Bizt. Aktiboa						Potentzialki aktiboa					
	% 03-07	% 07-11	% 11-15	% 15-19	% 19-23	% 99-23	% 03-07	% 07-11	% 11-15	% 15-19	% 19-23	% 99-23
Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua	34,4	13,7	0,5	4,6	1,8	109,5	34,4	13,7	0,8	5,0	2,2	112,1
Lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarri esanguratsua	33,9	7,4	16,7	-14,4	-8,7	51,1	36,7	5,3	16,7	-14,4	-8,7	51,1
Lan-esperientzia esanguratsua, ikasketa kualifikaturik gabe	-5,8	7,1	-20,6	-11,5	-7,6	-31,3	-5,7	8,1	-21,1	-11,3	-6,9	-30,3
Ikasketa kualifikatuak, lan-esperientzia esanguratsurik gabe	-6,5	4,6	12,6	4,9	4,9	5,7	-6,7	3,4	16,0	3,3	7,6	13,3
Prestakuntza osagarri esanguratsua, lan-esperientzia esanguratsurik gabe	-15,5	33,6	9,3	-5,0	6,3	9,6	-21,2	31,9	9,3	1,5	10,2	27,7
Ez lan-esperientzia esanguratsurik, ez ikasketa kualifikaturik	-22,9	-6,2	7,6	-38,3	-11,1	-63,0	-28,4	-8,0	5,9	-29,9	-10,2	-54,4
Guztira	1,6	10,3	-0,4	-5,0	0,1	6,8	-0,9	9,8	0,1	-3,4	1,5	13,2

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.2.c taula.
Biztanleria aktiboa eta potentzialki aktiboaren bilakaera, kualifikazio-maila orokorraren arabera
(% bertikalak)

Kualifikazio-maila orokorra	Bizt. Aktiboa						Potentzialki aktiboa					
	2003	2007	2011	2015	2019	2023	2003	2007	2011	2015	2019	2023
Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua	24,8	32,8	33,8	34,1	37,5	38,2	23,5	31,9	33,1	33,3	36,2	36,5
Lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarri esanguratsua	3,2	4,2	4,1	4,8	4,4	4,0	3,0	4,2	4,0	4,7	4,2	3,7
Lan-esperientzia esanguratsua, ikasketa kualifikaturik gabe	27,3	25,3	24,6	19,6	18,3	16,9	25,9	24,7	24,3	19,2	17,6	16,1
Ikasketa kualifikatuak, lan-esperientzia esanguratsurik gabe	17,6	16,2	15,4	17,4	19,2	20,1	17,5	16,5	15,5	18,0	19,2	20,4
Prestakuntza osagarri esanguratsua, lan-esperientzia esanguratsurik gabe	12,9	10,7	13,0	14,3	14,3	15,2	14,0	11,1	13,4	14,6	15,4	16,7
Ez lan-esperientzia esanguratsurik, ez ikasketa kualifikaturik	14,1	10,7	9,1	9,8	6,4	5,7	16,0	11,6	9,7	10,3	7,4	6,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.3.a taula.

Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera

(Datu absolutuak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %tan)

Sexua eta adina	Datu absolutuak						Hazkunde-tasak					
	2003	2007	2011	2015	2019	2023	% 03-07	% 07-11	% 11-15	% 15-19	% 19-23	% 03-23
< 35 urteko gizonak	40.467	43.698	44.818	25.605	22.427	21.066	8,0	2,6	-42,9	-12,4	-6,1	-26,0
35-44 urte bitarteko gizonak	50.209	63.487	71.731	67.871	60.244	50.937	26,4	13,0	-5,4	-11,2	-15,4	29,2
>= 45 urteko gizonak	55.813	78.159	86.636	94.632	116.342	126.841	40,0	10,8	9,2	22,9	9,0	174,9
Gizonezkoa	146.488	185.344	203.185	188.108	199.013	198.844	26,5	9,6	-7,4	5,8	-0,1	74,4
< 35 urteko emakumeak	34.003	49.838	46.297	32.658	28.366	25.655	46,6	-7,1	-29,5	-13,1	-9,6	-4,6
35-44 urte bitarteko emakumeak	41.007	54.665	61.683	73.573	68.789	54.569	33,3	12,8	19,3	-6,5	-20,7	63,6
>= 45 urteko emakumeak	25.401	42.045	66.154	84.738	100.440	124.799	65,5	57,3	28,1	18,5	24,3	576,9
Emakumezkoa	100.411	146.547	174.134	190.969	197.596	205.024	45,9	18,8	9,7	3,5	3,8	160,5
Guztira	246.899	331.891	377.319	379.077	396.608	403.868	34,4	13,7	0,5	4,6	1,8	109,5

5.3.b taula.

Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera (% bertikalak)

Sexua eta adina	2003	2007	2011	2015	2019	2023
< 35 urteko gizonak	16,4	13,2	11,9	6,8	5,7	5,2
35-44 urte bitarteko gizonak	20,3	19,1	19,0	17,9	15,2	12,6
>= 45 urteko gizonak	22,6	23,5	23,0	25,0	29,3	31,4
Gizonezkoa	59,3	55,8	53,8	49,6	50,2	49,2
< 35 urteko emakumeak	13,8	15,0	12,3	8,6	7,2	6,4
35-44 urte bitarteko emakumeak	16,6	16,5	16,3	19,4	17,3	13,5
>= 45 urteko emakumeak	10,3	12,7	17,5	22,4	25,3	30,9
Emakumezkoa	40,7	44,2	46,2	50,4	49,8	50,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

5.4.a taula.

Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dutenen pisua biztanleria aktiboan, sexuaren eta adinaren arabera (%tan)

Sexua eta adina	2003	2007	2011	2015	2019	2023
< 35 urteko gizonak	18,8	21,8	24,9	19,0	18,9	16,7
35-44 urte bitarteko gizonak	31,8	38,4	39,6	39,6	39,0	40,0
>= 45 urteko gizonak	27,3	36,0	35,8	34,2	41,9	42,9
Gizonezkoa	25,3	31,8	33,7	32,3	36,1	36,2
< 35 urteko emakumeak	19,2	30,7	27,4	24,5	25,4	23,0
35-44 urte bitarteko emakumeak	33,2	42,2	39,8	45,5	47,2	45,3
>= 45 urteko emakumeak	21,5	30,3	34,8	36,0	40,3	45,1
Emakumezkoa	24,0	34,1	33,9	36,0	39,0	40,3
Guztira	24,8	32,8	33,8	34,1	37,5	38,2

5.4.b taula.

Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dutenen pisua biztanleria potentzialki aktiboan, sexuaren eta adinaren arabera (%tan)

Sexua eta adina	2003	2007	2011	2015	2019	2023
< 35 urteko gizonak	18,2	21,3	24,6	18,6	18,7	15,5
35-44 urte bitarteko gizonak	31,7	38,4	39,3	39,5	38,5	39,2
>= 45 urteko gizonak	27,1	35,7	35,8	34,0	41,0	42,2
Gizonezkoa	25,0	31,5	33,5	32,0	35,4	35,1
< 35 urteko emakumeak	17,9	29,5	26,7	23,7	24,0	20,8
35-44 urte bitarteko emakumeak	30,6	40,3	38,3	43,8	45,9	43,3
>= 45 urteko emakumeak	18,3	28,8	33,2	34,7	37,7	42,7
Emakumezkoa	21,7	32,5	32,6	34,7	37,0	37,9
Guztira	23,5	31,9	33,1	33,3	36,2	36,5

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.5. taula.

Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria aktibo eta potentzialki aktiboa, jarduerarekiko loturaren arabera (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jarduerarekiko lotura		Datu absolutuak						% bertikalak					
		2003	2007	2011	2015	2019	2023	2003	2007	2011	2015	2019	2023
Aktiboa	Landuna	242.586	324.243	362.470	360.716	389.987	398.921	98,3	97,7	96,1	95,2	98,3	98,8
	Ez-landuna, esperientziaduna	4.313	7.649	14.849	18.362	6.621	4.947	1,7	2,3	3,9	4,8	1,7	1,2
Potentzialki aktiboa	Landuna	242.586	324.243	362.470	360.716	389.987	398.921	98,1	97,6	95,9	94,7	97,5	97,6
	Ez-landuna, esperientziaduna	4.669	8.111	15.493	20.293	9.963	9.893	1,9	2,4	4,1	5,3	2,5	2,4

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.6. taula.

Ez-okupazioaren tasa ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dutenen artean, sexuaren eta adinaren arabera (%tan)

Biztanleria aktibo eta potentzialki aktiboak

Lan-egoera, sexua eta adina		2003	2007	2011	2015	2019	2023
Aktiboak	< 35 urteko gizonak	2,1	2,3	4,2	1,8	,0	8,0
	35-44 urte bitarteko gizonak	,3	2,1	3,1	1,8	3,1	,9
	>= 45 urteko gizonak	,6	2,0	2,7	5,8	,3	1,5
	Gizonak	,9	2,1	3,1	3,8	1,1	2,0
	< 35 urteko emakumeak	4,2	2,4	7,9	12,7	3,7	,2
	35-44 urte bitarteko emakumeak	3,2	4,2	4,0	4,2	2,1	,3
	>= 45 urteko emakumeak	1,0	,5	3,5	4,7	2,0	,6
	Emakumeak	3,0	2,5	4,9	5,9	2,2	,5
	Guztira	1,7	2,3	3,9	4,8	1,7	1,2
	Potentzialki aktiboak	< 35 urteko gizonak	2,1	2,3	4,2	2,4	2,8
35-44 urte bitarteko gizonak		,3	2,1	3,1	1,8	3,2	1,1
>= 45 urteko gizonak		1,2	2,4	3,1	5,8	,7	3,4
Gizonak		1,2	2,3	3,3	3,9	1,7	3,4
< 35 urteko emakumeak		4,2	2,4	7,9	12,7	3,7	1,1
35-44 urte bitarteko emakumeak		3,2	4,2	4,5	4,8	3,6	1,2
>= 45 urteko emakumeak		1,0	,8	3,5	6,2	3,0	1,6
Emakumeak		3,0	2,6	5,0	6,8	3,3	1,5
Guztira		1,9	2,4	4,1	5,3	2,5	2,4

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboak eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.7 taula.

Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria landuna, lanbidearen, lanbide-kategoriaren eta enpresarekiko kontratu-harremanaren arabera (% bertikalak)

		2003	2007	2011	2015	2019	2023
Lanbidea	Zuzendariak eta teknikariak	60,6	58,4	55,6	56,2	68,0	63,0
	Administrariak	13,3	13,6	14,6	17,3	10,4	14,4
	Zerbitzu-arloko kualifikatuak	5,8	7,2	7,8	9,2	8,2	10,6
	Beste langile kualifikatu batzuk	17,6	18,5	18,7	14,4	11,9	10,4
	Zerbitzu-arloko kualifikatu gabeak	1,2	1,6	1,9	2,2	0,7	1,5
	Kualifikaziorik gabeko beste langile batzuk	1,5	0,6	1,3	0,7	1,0	0,1
Lanbide-kategoria	Zuzendaritzako langileak	7,1	5,5	4,0	7,1	8,5	8,2
	Teknikariak (diplomadunak, lizentziadunak)	41,5	42,9	44,5	45,3	57,1	53,2
	Arduradunak, erdi-mailako arduradunak (langilezaina, taldeburua)	10,5	9,8	7,2	6,2	2,4	1,8
	Kualifikatua (2. mailako ofiziala, 1. mailako ofiziala)	31,7	28,8	35,1	32,6	29,8	33,8
	Kualifikatu gabea (peoia, laguntzailea, 3. mailako ofiziala)	9,2	13,2	9,2	8,8	2,2	2,9
Kontratu-harremana	Mugagabea	73,2	72,1	72,0	74,6	71,8	73,9
	Aldi baterakoa	5,3	6,3	4,7	5,3	7,2	7,4
	Obrakoa	2,4	2,0	2,9	4,2	3,3	1,0
	Kontraturik gabe	0,4	0,4	0,2	0,1	0,0	0,0
	Beste egoeraren bat	0,2	1,2	0,0	0,1	0,1	0,4
	Norberaren kontura	18,6	18,0	20,1	15,7	17,6	17,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	

5.8. taula.

Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria landuna, lanbidearen, lanbide-kategoriaren eta enpresarekiko kontratu-harremanaren arabera (Pisua erreferentziako biztanleria landunean, %tan)

		2003	2007	2011	2015	2019	2023
Lanbidea	Zuzendariak eta teknikariak	57,4	59,5	66,5	65,0	67,5	60,7
	Administrariak	37,7	46,6	51,1	54,7	42,7	52,2
	Zerbitzu-arloko kualifikatuak	9,7	16,8	17,7	20,9	19,4	22,3
	Beste langile kualifikatu batzuk	13,9	20,5	26,2	25,2	21,6	22,7
	Zerbitzu-arloko kualifikatu gabeak	4,2	7,8	9,3	9,7	4,4	9,8
	Kualifikaziorik gabeko beste langile batzuk	9,2	4,9	11,5	14,4	19,9	2,5
Lanbide-kategoria	Zuzendaritzako langileak	49,6	40,8	47,6	52,3	56,2	52,7
	Teknikariak (diplomadunak, lizentziadunak)	67,5	70,1	75,6	75,3	70,4	63,0
	Arduradunak, erdi-mailako arduradunak (langilezaina, taldeburua)	33,8	37,0	47,4	49,8	39,0	42,1
	Kualifikatua (2. mailako ofiziala, 1. mailako ofiziala)	21,5	30,3	34,4	33,8	26,3	29,9
	Kualifikatu gabea (peoia, laguntzailea, 3. mailako ofiziala)	7,8	13,4	12,2	13,8	8,3	10,8
Kontratu-harremana	Mugagabea	34,7	40,5	44,4	48,0	47,8	43,3
	Aldi baterakoa	11,2	17,5	18,8	18,8	28,9	28,0
	Obrakoa	9,9	12,1	15,1	23,2	13,9	25,7
	Kontraturik gabe	3,5	7,5	5,5	5,1	,9	,0
	Beste egoeraren bat	4,4	24,8	1,9	8,7	23,8	27,7
	Norberaren kontura	24,9	33,8	41,8	37,7	43,2	41,2
	Guztira	26,8	34,0	38,4	40,5	41,3	40,9

5.9.a taula.

Ikasketa kualifikaturik ez baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dituen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera
(Datu absolutuak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %tan)

Sexua eta adina	Datu absolutuak						Hazkunde-tasak					
	2003	2007	2011	2015	2019	2023	% 03-07	% 07-11	% 11-15	% 15-19	% 19-23	% 99-23
< 35 urteko gizonak	5.503	8.558	8.307	5.111	5.413	1.385	55,5	-2,9	-38,5	5,9	-74,4	-71,7
35-44 urte bitarteko gizonak	8.335	6.821	9.370	8.572	11.237	8.563	-18,2	37,4	-8,5	31,1	-23,8	9,8
>= 45 urteko gizonak	8.533	13.931	12.424	15.984	11.072	17.816	63,3	-10,8	28,7	-30,7	60,9	265,7
Gizonezkoa	22.371	29.311	30.101	29.667	27.722	27.764	31,0	2,7	-1,4	-6,6	0,2	58,0
< 35 urteko emakumeak	2.368	2.191	3.326	4.987	2.785	1.991	-7,5	51,8	50,0	-44,2	-28,5	-22,9
35-44 urte bitarteko emakumeak	2.641	3.241	5.249	7.125	5.398	977	22,7	62,0	35,7	-24,2	-81,9	-67,5
>= 45 urteko emakumeak	4.622	8.121	7.367	11.960	10.096	11.257	75,7	-9,3	62,3	-15,6	11,5	142,6
Emakumezkoa	9.631	13.553	15.942	24.073	18.279	14.226	40,7	17,6	51,0	-24,1	-22,2	39,1
Guztira	32.002	42.864	46.043	53.740	46.001	41.990	33,9	7,4	16,7	-14,4	-8,7	51,1

5.9.b taula.

Ikasketa kualifikaturik ez baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dituen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera
(% bertikalak)

Sexua eta adina	2003	2007	2011	2015	2019	2023
< 35 urteko gizonak	17,2	20,0	18,0	9,5	11,8	3,3
35-44 urte bitarteko gizonak	26,0	15,9	20,4	16,0	24,4	20,4
>= 45 urteko gizonak	26,7	32,5	27,0	29,7	24,1	42,4
Gizonezkoa	69,9	68,4	65,4	55,2	60,3	66,1
< 35 urteko emakumeak	7,4	5,1	7,2	9,3	6,1	4,7
35-44 urte bitarteko emakumeak	8,3	7,6	11,4	13,3	11,7	2,3
>= 45 urteko emakumeak	14,4	18,9	16,0	22,3	21,9	26,8
Emakumezkoa	30,1	31,6	34,6	44,8	39,7	33,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

5.10.a taula.

Ikasketa kualifikaturik ez baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dituztenen pisua biztanleria aktiboan, sexuaren eta adinaren arabera (%tan)

Sexua eta adina	2003	2007	2011	2015	2019	2023
< 35 urteko gizonak	2,6	4,3	4,6	3,8	4,6	1,1
35-44 urte bitarteko gizonak	5,3	4,1	5,2	5,0	7,3	6,7
>= 45 urteko gizonak	4,2	6,4	5,1	5,8	4,0	6,0
Gizonezkoa	3,9	5,0	5,0	5,1	5,0	5,1
< 35 urteko emakumeak	1,3	1,4	2,0	3,7	2,5	1,8
35-44 urte bitarteko emakumeak	2,1	2,5	3,4	4,4	3,7	,8
>= 45 urteko emakumeak	3,9	5,9	3,9	5,1	4,1	4,1
Emakumezkoa	2,3	3,2	3,1	4,5	3,6	2,8
Guztira	3,2	4,2	4,1	4,8	4,4	4,0

5.10.b taula.

Ikasketa kualifikaturik ez baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dituztenen pisua biztanleria potentzialki aktiboan, sexuaren eta adinaren arabera (%tan)

Sexua eta adina	2007	2011	2015	2019	2023
< 35 urteko gizonak	4,5	4,6	3,7	4,4	1,0
35-44 urte bitarteko gizonak	4,1	5,1	5,0	7,2	6,6
>= 45 urteko gizonak	6,3	5,1	5,7	3,9	5,8
Gizonezkoa	5,1	5,0	5,0	4,9	4,8
< 35 urteko emakumeak	1,3	1,9	3,6	2,4	1,6
35-44 urte bitarteko emakumeak	2,4	3,2	4,2	3,5	,8
>= 45 urteko emakumeak	5,7	3,7	4,8	3,7	3,8
Emakumezkoa	3,1	3,0	4,3	3,4	2,6
Guztira	4,2	4,0	4,7	4,2	3,7

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.11. taula.

Ikasketa kualifikaturik ez baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dituen biztanleria aktiboa, jarduerarekiko loturaren arabera (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jarduerarekiko lotura	Datu absolutuak						% bertikalak						
	2003	2007	2011	2015	2019	2023	2003	2007	2011	2015	2019	2023	
Aktiboa	Landuna	31.739	42.356	40.798	47.251	44.556	40.664	99,2	98,8	88,6	87,9	96,9	96,8
	Ez-landuna, esperientziaduna	262	507	5.245	6.489	1.445	1.326	,8	1,2	11,4	12,1	3,1	3,2
Potentzialki aktiboa	Landuna	31.739	42.356	40.798	47.251	44.556	40.664	99,2	96,8	88,6	87,9	96,9	96,8
	Ez-landuna, esperientziaduna	262	1.387	5.245	6.489	1.445	1.326	,8	3,2	11,4	12,1	3,1	3,2

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.12 taula.

Ez-okupazioaren tasa, ikasketa kualifikaturik ez baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dutenen artean, sexuaren eta adinaren arabera (%tan)

Biztanleria aktibo eta potentzialki aktiboa

Lan-egoera, sexua eta adina		2003	2007	2011	2015	2019	2023
Aktiboa	< 35 urteko gizonak	4,8	,0	1,3	20,3	14,5	,0
	35-44 urte bitarteko gizonak	,0	,0	14,9	13,5	5,9	2,7
	>= 45 urteko gizonak	,0	3,6	8,7	14,0	,0	1,8
	Gizonak	1,2	1,7	8,6	14,9	5,2	2,0
	< 35 urteko emakumeak	,0	,0	,0	,0	,0	,0
	35-44 urte bitarteko emakumeak	,0	,0	22,7	23,2	,0	,0
	>= 45 urteko emakumeak	,0	,0	19,9	3,4	,0	6,8
	Emakumeak	,0	,0	16,7	8,6	,0	5,4
	Guztira	,8	1,2	11,4	12,1	3,1	3,2
	Potentzialki aktiboa	< 35 urteko gizonak	4,8	7,3	1,3	20,3	14,5
35-44 urte bitarteko gizonak		,0	,0	14,9	13,5	5,9	2,7
>= 45 urteko gizonak		,0	3,6	8,7	14,0	,0	1,8
Gizonak		1,2	3,9	8,6	14,9	5,2	2,0
< 35 urteko emakumeak		,0	,0	,0	,0	,0	,0
35-44 urte bitarteko emakumeak		,0	,0	22,7	23,2	,0	,0
>= 45 urteko emakumeak		,0	2,5	19,9	3,4	,0	6,8
Emakumeak		,0	1,5	16,7	8,6	,0	5,4
Guztira		,8	3,2	11,4	12,1	3,1	3,2

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.13 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dituen biztanleria landuna, lanbidearen, lanbide-kategoriaren eta enpresarekiko kontratu-harremanaren arabera (% bertikalak)

		2003	2007	2011	2015	2019	2023
Lanbidea	Zuzendariak eta teknikariak	26,9	25,5	24,7	25,6	18,1	25,3
	Administrariak	19,9	16,9	11,2	17,1	13,5	6,1
	Zerbitzu-arloko kualifikatuak	14,5	13,0	21,8	20,4	23,0	32,9
	Beste langile kualifikatu batzuk	34,9	33,6	31,4	31,5	33,8	24,5
	Zerbitzu-arloko kualifikatu gabeak	2,4	6,8	6,9	5,3	8,9	6,1
	Kualifikaziorik gabeko beste langile batzuk	1,4	4,2	4,0	,2	2,9	5,1
Lanbide-kategoria	Zuzendaritzako langileak	7,0	12,0	6,1	2,3	5,5	7,8
	Teknikariak (diplomadunak, lizentziadunak)	6,4	2,2	4,9	9,4	9,0	15,1
	Arduradunak, erdi-mailako arduradunak (langilezaina, taldeburua)	11,4	14,9	8,0	6,5	4,5	2,4
	Kualifikatua (2. mailako ofiziala, 1. mailako ofiziala)	55,5	45,4	44,0	60,8	64,1	60,9
	Kualifikatu gabea (peoia, laguntzailea, 3. mailako ofiziala)	19,8	25,6	37,0	20,9	17,0	13,8
Kontratu-harremana	Mugagabea	72,4	62,6	65,0	69,1	66,1	61,7
	Aldi baterakoa	,8	3,6	4,4	7,8	1,7	4,6
	Obrakoa	2,5	1,2	2,9	1,5	7,3	,0
	Kontraturik gabe	,8	,8	,0	,0	3,6	,0

Beste egoeraren bat	,0	,0	,5	,0	,0	,0
Norberaren kontura	23,5	31,8	27,2	21,5	21,4	33,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

5.14. taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dituen biztanleria landuna, lanbidearen, lanbide-kategoriaren eta enpresarekiko kontratu-harremanaren arabera (Pisua erreferentziako biztanleria landunean, %tan)

		2003	2007	2011	2015	2019	2023
Lanbidea	Zuzendariak eta teknikariak	3,3	3,4	3,3	3,9	2,0	2,5
	Administrariak	7,4	7,5	4,4	7,1	6,3	2,3
	Zerbitzu-arloko kualifikatuak	3,2	3,9	5,5	6,0	6,2	7,0
	Beste langile kualifikatu batzuk	3,6	4,9	4,9	7,2	7,0	5,5
	Zerbitzu-arloko kualifikatu gabeak	1,1	4,2	3,7	3,1	6,9	4,2
	Kualifikaziorik gabeko beste langile batzuk	1,1	4,7	4,0	,6	6,8	10,3
Lanbide-kategoria	Zuzendaritzako langileak	6,4	11,7	8,2	2,2	4,1	5,1
	Teknikariak (diplomadunak, lizentziadunak)	1,4	,5	,9	2,1	1,3	1,8
	Arduradunak, erdi-mailako arduradunak (langilezaina, taldeburua)	4,8	7,4	5,9	6,9	8,5	5,5
	Kualifikatua (2. mailako ofiziala, 1. mailako ofiziala)	4,9	6,2	4,9	8,3	6,5	5,5
	Kualifikatu gabea (peoia, laguntzailea, 3. mailako ofiziala)	2,2	3,4	5,5	4,3	7,3	5,2
Kontratu-harremana	Mugagabea	4,5	4,6	4,5	5,8	5,0	3,7
	Aldi baterakoa	,2	1,3	2,0	3,6	,8	1,8
	Obrakoa	1,4	1,0	1,7	1,1	3,5	,0
	Kontraturik gabe	,9	2,2	,0	,0	17,7	,0
	Beste egoeraren bat	,0	,0	3,0	,0	,0	,0
	Norberaren kontura	4,1	7,8	6,4	6,8	6,0	8,2
	Guztira	3,5	4,4	4,3	5,3	4,7	4,2

5.15.a taula.

Ez ikasketa kualifikaturik ez prestakuntza osagarririk ez duen baina lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera
(Datu absolutuak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %tan)

Sexua eta adina	Datu absolutuak						Hazkunde-tasak					
	2003	2007	2011	2015	2019	2023	% 03-07	% 07-11	% 11-15	% 15-19	% 19-23	% 99-23
< 35 urteko gizonak	25.940	27.502	23.647	13.382	7.508	4.181	6,0	-14,0	-43,4	-43,9	-44,3	-85,0
35-44 urte bitarteko gizonak	53.084	47.897	50.192	28.919	27.583	19.433	-9,8	4,8	-42,4	-4,6	-29,5	-67,6
>= 45 urteko gizonak	107.081	97.017	105.921	91.884	79.501	75.545	-9,4	9,2	-13,3	-13,5	-5,0	-26,2
Gizonezkoa	186.105	172.416	179.760	134.185	114.591	99.159	-7,4	4,3	-25,4	-14,6	-13,5	-47,8
< 35 urteko emakumeak	10.850	13.770	8.897	7.214	7.813	2.617	26,9	-35,4	-18,9	8,3	-66,5	-82,3
35-44 urte bitarteko emakumeak	25.905	24.065	22.480	14.547	11.248	12.134	-7,1	-6,6	-35,3	-22,7	7,9	-45,1
>= 45 urteko emakumeak	49.461	46.148	63.541	62.191	59.487	64.463	-6,7	37,7	-2,1	-4,3	8,4	97,0
Emakumezkoa	86.216	83.983	94.918	83.952	78.548	79.214	-2,6	13,0	-11,6	-6,4	0,8	13,8
Guztira	272.321	256.399	274.678	218.137	193.140	178.373	-5,8	7,1	-20,6	-11,5	-7,6	-31,3

5.15.b taula.

Ez ikasketa kualifikaturik ez prestakuntza osagarririk ez duen baina lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera
(% bertikalak)

Sexua eta adina	2003	2007	2011	2015	2019	2023
< 35 urteko gizonak	9,5	10,7	8,6	6,1	3,9	2,3
35-44 urte bitarteko gizonak	19,5	18,7	18,3	13,3	14,3	10,9
>= 45 urteko gizonak	39,3	37,8	38,6	42,1	41,2	42,4
Gizonezkoa	68,3	67,2	65,4	61,5	59,3	55,6
< 35 urteko emakumeak	4,0	5,4	3,2	3,3	4,0	1,5
35-44 urte bitarteko emakumeak	9,5	9,4	8,2	6,7	5,8	6,8
>= 45 urteko emakumeak	18,2	18,0	23,1	28,5	30,8	36,1
Emakumezkoa	31,7	32,8	34,6	38,5	40,7	44,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

5.16.a taula.

Ez ikasketa kualifikaturik ez prestakuntza osagarririk ez duten baina lan-esperientzia esanguratsua dutenen pisua biztanleria aktiboan, sexuaren eta adinaren arabera (%tan)

Sexua eta adina	2003	2007	2011	2015	2019	2023
< 35 urteko gizonak	12,0	13,7	13,1	9,9	6,3	3,3
35-44 urte bitarteko gizonak	33,6	29,0	27,7	16,9	17,9	15,3
>= 45 urteko gizonak	52,3	44,7	43,7	33,2	28,6	25,6
Gizonezkoa	32,2	29,6	29,8	23,0	20,8	18,1
< 35 urteko emakumeak	6,1	8,5	5,3	5,4	7,0	2,3
35-44 urte bitarteko emakumeak	21,0	18,6	14,5	9,0	7,7	10,1
>= 45 urteko emakumeak	42,0	33,3	33,5	26,4	23,9	23,3
Emakumezkoa	20,6	19,5	18,5	15,8	15,5	15,6
Guztira	27,3	25,3	24,6	19,6	18,3	16,9

5.16.b taula.

Ez ikasketa kualifikaturik ez prestakuntza osagarririk ez duten baina lan-esperientzia esanguratsua dutenen pisua biztanleria potentzialki aktiboan, sexuaren eta adinaren arabera (%tan)

Sexua eta adina	2007	2011	2015	2019	2023
< 35 urteko gizonak	13,4	13,0	9,6	6,1	3,1
35-44 urte bitarteko gizonak	28,9	27,7	16,8	17,6	15,2
>= 45 urteko gizonak	44,4	43,6	33,2	28,2	24,7
Gizonezkoa	29,3	29,6	22,9	20,4	17,4
< 35 urteko emakumeak	8,2	5,1	5,2	6,6	2,1
35-44 urte bitarteko emakumeak	17,7	15,2	8,6	7,7	9,5
>= 45 urteko emakumeak	31,5	32,2	25,3	22,2	22,6
Emakumezkoa	18,6	18,3	15,2	14,7	14,9
Guztira	24,7	24,3	19,2	17,6	16,1

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.17. taula.

Ez ikasketa kualifikaturik ez prestakuntza osagarririk ez duen baina lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktibo eta potentzialki aktiboa, jarduerarekiko loturaren arabera (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jarduerarekiko lotura		Datu absolutuak						% bertikalak					
		2003	2007	2011	2015	2019	2023	2003	2007	2011	2015	2019	2023
Aktiboa	Landuna	268.379	254.371	263.146	207.605	191.654	177.060	98,6	99,2	95,8	95,2	99,2	99,3
	Ez-landuna, esperientziaduna	3.942	2.027	11.533	10.533	1.486	1.313	1,4	,8	4,2	4,8	,8	,7
Potentzialki aktiboa	Landuna	268.379	254.371	263.146	207.605	191.654	177.060	98,5	98,9	94,7	94,7	98,6	97,8
	Ez-landuna, esperientziaduna	4.155	2.707	14.680	11.667	2.736	3.984	1,5	1,1	5,3	5,3	1,4	2,2

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.18. taula.

Ez-okupazioaren tasa ez ikasketa kualifikaturik ez prestakuntza osagarririk ez duen baina lan-esperientzia esanguratsua dutenen artean, sexuaren eta adinaren arabera (%tan) Biztanleria aktibo eta potentzialki aktiboa

Lan-egoera, sexua eta adina		2003	2007	2011	2015	2019	2023
Aktiboa	< 35 urteko gizonak	2,8	,9	6,1	5,2	,0	,0
	35-44 urte bitarteko gizonak	,9	,6	8,7	12,0	,7	,0
	>= 45 urteko gizonak	,7	,4	3,5	2,3	,7	,1
	Gizonak	1,1	,5	5,3	4,7	,7	,1
	< 35 urteko emakumeak	6,9	,4	2,5	4,0	,0	18,5
	35-44 urte bitarteko emakumeak	3,4	2,8	,4	7,6	,0	,0
	>= 45 urteko emakumeak	,6	,8	2,7	4,6	1,2	1,2
	Emakumeak	2,3	1,3	2,1	5,0	,9	1,6
	Guztira	1,4	,8	4,2	4,8	,8	,7
	Potentzialki aktiboa	< 35 urteko gizonak	2,8	,9	6,1	5,2	,0
35-44 urte bitarteko gizonak		1,1	,6	9,3	12,0	,7	1,8
>= 45 urteko gizonak		,7	1,0	3,5	3,0	1,5	,3
Gizonak		1,1	,9	5,5	5,1	1,2	,6
< 35 urteko emakumeak		6,9	1,3	2,5	4,0	,0	18,5
35-44 urte bitarteko emakumeak		3,4	2,8	8,9	7,6	3,4	,0
>= 45 urteko emakumeak		,8	,8	3,8	5,3	1,6	4,4
Emakumeak		2,4	1,4	5,0	5,6	1,7	4,2
Guztira		1,5	1,1	5,3	5,3	1,4	2,2

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.19 taula.

Ez ikasketa kualifikaturik ez prestakuntza osagarririk ez duen baina lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria landuna, lanbidearen, lanbide-kategoriaren eta enpresarekiko kontratu-harremanaren arabera (% bertikalak)

		2003	2007	2011	2015	2019	2023
Lanbidea	Zuzendariak eta teknikariak	10,1	16,0	11,2	14,9	12,9	17,2
	Administrariak	8,7	8,2	10,2	11,2	7,4	8,5
	Zerbitzu-arloko kualifikatuak	17,4	15,2	18,6	22,5	22,8	30,5
	Beste langile kualifikatu batzuk	50,9	46,7	42,0	36,5	41,8	31,2
	Zerbitzu-arloko kualifikatu gabeak	8,5	8,1	11,2	11,0	11,5	9,4
	Kualifikaziorik gabeko beste langile batzuk	4,5	5,8	6,8	4,0	3,7	3,1
Lanbide-kategoria	Zuzendaritzako langileak	3,7	5,8	3,2	6,6	6,7	7,8
	Teknikariak (diplomadunak, lizentziadunak)	1,8	2,6	1,8	2,4	4,7	8,1
	Arduradunak, erdi-mailako arduradunak (langilezaina, taldeburua)	9,5	11,3	7,0	5,8	2,0	3,0
	Kualifikatua (2. mailako ofiziala, 1. mailako ofiziala)	52,1	41,2	47,8	49,4	68,2	64,3
	Kualifikatu gabea (peoia, laguntzailea, 3. mailako ofiziala)	32,9	39,0	40,3	35,9	18,4	16,8
Kontratu-harremana	Mugagabea	62,4	67,3	68,5	69,3	66,9	71,0
	Aldi baterakoa	2,9	2,9	1,5	5,8	3,3	2,7
	Obrakoa	2,3	2,0	4,1	1,5	4,8	,0
	Kontraturik gabe	1,9	1,2	1,5	,6	1,5	,8
	Beste egoeraren bat	,6	,8	,7	,4	,1	,0
	Norberaren kontura	29,9	25,8	23,6	22,5	23,4	25,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	

5.20. taula.

Ez ikasketa kualifikaturik ez prestakuntza osagarriarik ez duen baina lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria landuna, lanbidearen, lanbide-kategoriaren eta enpresarekiko kontratu-harremanaren arabera
(Pisua erreferentziako biztanleria landunean, %tan)

		2003	2007	2011	2015	2019	2023
Lanbidea	Zuzendariak eta teknikariak	10,6	12,8	9,8	9,9	6,3	7,4
	Administrariak	27,2	22,1	25,8	20,3	14,9	13,7
	Zerbitzu-arloko kualifikatuak	32,4	27,6	30,4	29,3	26,6	28,3
	Beste langile kualifikatu batzuk	44,2	40,6	42,7	36,8	37,3	30,3
	Zerbitzu-arloko kualifikatu gabeak	32,6	30,0	38,8	28,0	38,2	28,2
	Kualifikaziorik gabeko beste langile batzuk	30,6	38,3	44,0	49,2	38,0	27,2
Lanbide-kategoria	Zuzendaritzako langileak	28,9	34,2	27,9	27,7	21,9	22,2
	Teknikariak (diplomadunak, lizentziadunak)	3,3	3,4	2,2	2,3	2,9	4,3
	Arduradunak, erdi-mailako arduradunak (langilezaina, taldeburua)	34,1	33,6	33,6	26,9	16,3	31,0
	Kualifikatua (2. mailako ofiziala, 1. mailako ofiziala)	39,0	34,0	33,9	29,5	29,6	25,2
	Kualifikatu gabea (peoia, laguntzailea, 3. mailako ofiziala)	30,8	31,3	38,6	32,2	34,2	27,6
Kontratu-harremana	Mugagabea	32,7	29,6	30,7	25,7	21,9	18,5
	Aldi baterakoa	6,8	6,3	4,3	11,8	6,4	4,5
	Obrakoa	10,5	9,4	15,4	4,7	10,1	,1
	Kontraturik gabe	16,6	20,3	30,2	14,2	31,5	68,9
	Beste egoeraren bat	18,6	12,1	29,5	20,9	7,5	,0
	Norberaren kontura	44,4	38,0	35,6	31,2	28,2	27,0
	Guztira	29,7	26,7	27,9	23,3	20,3	18,1

5.21.a taula.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez baina ikasketa kualifikatuak dituen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera
(Datu absolutuak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %tan)

Sexua eta adina	Datu absolutuak						Hazkunde-tasak					
	2003	2007	2011	2015	2019	2023	% 03-07	% 07-11	% 11-15	% 15-19	% 19-23	% 03-23
< 35 urteko gizonak	65.691	54.828	51.140	45.739	47.038	55.991	-16,5	-6,7	-10,6	2,8	19,0	-27,8
35-44 urte bitarteko gizonak	16.449	16.595	16.872	25.048	22.196	22.570	0,9	1,7	48,5	-11,4	1,7	54,1
>= 45 urteko gizonak	4.450	7.658	8.330	14.955	22.482	24.139	72,1	8,8	79,5	50,3	7,4	304,7
Gizonezkoa	86.590	79.081	76.342	85.742	91.716	102.699	-8,7	-3,5	12,3	7,0	12,0	4,6
< 35 urteko emakumeak	68.184	57.665	57.464	55.391	48.219	50.474	-15,4	-0,3	-3,6	-12,9	4,7	-40,8
35-44 urte bitarteko emakumeak	16.735	19.187	24.814	32.088	31.997	25.710	14,6	29,3	29,3	-0,3	-19,7	59,9
>= 45 urteko emakumeak	4.057	8.254	13.191	20.227	31.041	34.096	103,5	59,8	53,3	53,5	9,8	1530,9
Emakumezkoa	88.977	85.106	95.469	107.706	111.257	110.279	-4,4	12,2	12,8	3,3	-0,9	6,6
Guztira	175.567	164.187	171.811	193.448	202.973	212.979	-6,5	4,6	12,6	4,9	4,9	5,7

5.21.b taula.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez baina ikasketa kualifikatuak dituen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera
(% bertikalak)

Sexua eta adina	2003	2007	2011	2015	2019	2023
< 35 urteko gizonak	37,4	33,4	29,8	23,6	23,2	26,3
35-44 urte bitarteko gizonak	9,4	10,1	9,8	12,9	10,9	10,6
>= 45 urteko gizonak	2,5	4,7	4,8	7,7	11,1	11,3
Gizonezkoa	49,3	48,2	44,4	44,3	45,2	48,2
< 35 urteko emakumeak	38,8	35,1	33,4	28,6	23,8	23,7
35-44 urte bitarteko emakumeak	9,5	11,7	14,4	16,6	15,8	12,1
>= 45 urteko emakumeak	2,3	5,0	7,7	10,5	15,3	16,0
Emakumezkoa	50,7	51,8	55,6	55,7	54,8	51,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

5.22.a taula.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez baina ikasketa kualifikatuak dituztenen pisua biztanleria aktiboan, sexuaren eta adinaren arabera (%tan)

Sexua eta adina	2003	2007	2011	2015	2019	2023
< 35 urteko gizonak	30,5	27,4	28,4	33,9	39,7	44,4
35-44 urte bitarteko gizonak	10,4	10,0	9,3	14,6	14,4	17,7
>= 45 urteko gizonak	2,2	3,5	3,4	5,4	8,1	8,2
Gizonezkoa	15,0	13,6	12,7	14,7	16,6	18,7
< 35 urteko emakumeak	38,5	35,6	34,0	41,5	43,2	45,2
35-44 urte bitarteko emakumeak	13,6	14,8	16,0	19,8	22,0	21,3
>= 45 urteko emakumeak	3,4	6,0	6,9	8,6	12,5	12,3
Emakumezkoa	21,3	19,8	18,6	20,3	22,0	21,7
Guztira	17,6	16,2	15,4	17,4	19,2	20,1

5.22.b taula.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez baina ikasketa kualifikatuak dituztenen pisua biztanleria potentzialki aktiboan, sexuaren eta adinaren arabera (%tan)

Sexua eta adina	2007	2011	2015	2019	2023
< 35 urteko gizonak	27,4	28,6	33,9	39,0	43,0
35-44 urte bitarteko gizonak	10,0	9,5	14,8	14,2	18,6
>= 45 urteko gizonak	3,7	3,5	5,6	8,5	8,6
Gizonezkoa	13,7	12,8	15,0	16,8	19,1
< 35 urteko emakumeak	35,4	34,4	42,1	42,1	43,4
35-44 urte bitarteko emakumeak	16,0	15,4	20,7	22,4	21,2
>= 45 urteko emakumeak	6,3	7,4	9,8	12,5	12,9
Emakumezkoa	20,1	18,6	21,2	21,8	21,8
Guztira	16,5	15,5	18,0	19,2	20,4

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.23 taula.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez baina ikasketa kualifikatuak dituen biztanleria aktibo eta potentzialki aktiboa, jarduerarekiko loturaren arabera (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jarduerarekiko lotura	Datu absolutuak						% bertikalak						
	2003	2007	2011	2015	2019	2023	2003	2007	2011	2015	2019	2023	
Aktiboa	Landuna	143.720	144.988	129.838	132.137	172.365	189.224	81,9	88,3	75,6	68,3	84,9	88,8
	Ez-landuna, esperientziaduna	23.098	18.046	35.396	52.583	26.277	21.092	13,2	11,0	20,6	27,2	12,9	9,9
	Ez-landuna, esperientziarik gabe	8.749	1.154	6.578	8.729	4.332	2.662	5,0	,7	3,8	4,5	2,1	1,2
	Ez-landuna	31.847	19.200	41.974	61.311	30.609	23.754	18,1	11,7	24,4	31,7	15,1	11,2
Potentzialki aktiboa	Landuna	143.720	144.988	129.838	132.137	172.365	189.224	78,2	84,6	73,3	64,3	81,2	82,9
	Ez-landuna, esperientziaduna	29.436	24.080	38.030	63.018	34.169	33.458	16,0	14,0	21,5	30,7	16,1	14,6
	Ez-landuna, esperientziarik gabe	10.550	2.342	9.375	10.376	5.792	5.704	5,7	1,4	5,3	5,0	2,7	2,5
	Ez-landuna	39.986	26.422	47.405	73.394	39.961	39.162	21,8	15,4	26,7	35,7	18,8	17,1

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktiboa eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.24. taula.

Ez-okupazioaren tasa lan-esperientzia esanguratsurik ez baina ikasketa kualifikatuak dituztenen artean, sexuaren eta adinaren arabera

Biztanleria aktibo eta potentzialki aktibo

Lan-egoera, sexua eta adina		2003	2007	2011	2015	2019	2023
Aktibo	< 35 urteko gizonak	17,8	10,6	32,0	38,5	13,0	10,2
	35-44 urte bitarteko gizonak	10,3	5,9	8,8	27,4	7,9	7,8
	>= 45 urteko gizonak	26,3	,0	12,9	38,4	17,6	10,1
	Gizonak	16,8	8,6	24,8	35,2	12,9	9,6
	< 35 urteko emakumeak	20,4	12,0	27,6	22,3	13,5	9,9
	35-44 urte bitarteko emakumeak	14,9	13,1	18,9	35,3	16,6	15,4
	>= 45 urteko emakumeak	22,3	35,6	19,2	36,7	22,4	14,3
	Emakumeak	19,4	14,6	24,1	28,9	16,9	12,6
	Guztira	18,1	11,7	24,4	31,7	15,1	11,2
	Potentzialki aktibo	< 35 urteko gizonak	18,5	12,6	33,4	40,1	15,2
35-44 urte bitarteko gizonak		10,3	5,9	10,9	28,7	8,3	14,2
>= 45 urteko gizonak		26,3	6,2	13,8	41,0	23,5	17,4
Gizonak		17,4	10,5	26,3	37,0	15,7	15,2
< 35 urteko emakumeak		23,7	15,1	30,3	25,9	16,1	15,8
35-44 urte bitarteko emakumeak		26,7	23,0	19,1	40,6	21,9	19,4
>= 45 urteko emakumeak		47,1	42,1	27,8	47,5	28,5	23,1
Emakumeak		25,8	19,8	27,1	34,8	21,3	19,0
Guztira		21,8	15,4	26,7	35,7	18,8	17,1

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek biztanleria aktibo eta biztanleria aktibo potentziala biltzen dituzte.

5.25. taula.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez baina ikasketa kualifikatuak dituen biztanleria landuna, lanbidearen, lanbide-kategoriaren eta enpresarekiko kontratu-harremanaren arabera (% bertikalak)

		2003	2007	2011	2015	2019	2023
Lanbidea	Zuzendariak eta teknikariak	40,9	44,7	40,7	41,3	48,3	52,0
	Administrariak	10,1	8,4	9,0	11,0	14,6	14,3
	Zerbitzu-arloko kualifikatuak	17,8	16,8	20,4	23,0	19,7	16,1
	Beste langile kualifikatu batzuk	23,5	23,3	19,9	17,6	15,8	13,1
	Zerbitzu-arloko kualifikatu gabeak	4,0	4,5	6,9	6,4	1,4	2,9
	Kualifikaziorik gabeko beste langile batzuk	3,7	2,2	3,1	,7	,2	1,5
